

Kultura

Kristina Mardarasek jantziko dio txapela Bizkaiko
Bertsolari Txapelketako txapeldunari > 11



Durango fracking gabeko herri izendatu dute asteon

Mañariko, Iurretako eta Otxandioko udalbatzek ere frackingaren kontrako mozioa onartu dute; lehen kasu bietan ekimenak EAJren babesu jaso du

Durangaldeko lau herritako udalbatzek frackingaren kontrako mozioa onartu dute. Talde honetara biltzen azkena Durango izan da. Martitzenean egindako udalbatzarrean Fracking Ez plataformak aurkeztutako mozioa onartu zuten. Eusko Jaurlaritzak gasa ote dagoen ikertzeko emandako Lore baimena bertan behera uztea exijitu zuten. Izan ere, eremu horretan Durangoko lurrak sartzen dira, eta Durangaldean Saia, Mirua eta Sustraia eremuak ere aurreikusten dira. > 4



Lehior Elorriaga.

Gazteen 'droga' berriak?

Amankomunazgoko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak teknologia berriei buruzko inkesta egin du 10 eta 20 urte arteko gazteen artean. %84,8k txata erabiltzen du. > 2

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua Industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KANOIA



ERRADIA-
DOREAK



HEZETASUN
KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA
URPEKARIAK



Zorionak eta urte berri on!

Abadiño > 8

Genero indarkeriari aurre egiteko koordinazio batzordea sortuko du udalak

Durangaldea > 3

Bizkaibus zerbitzua Mañarira eta Izurtzara heldu da

Elorrio > 6

Elorrioko euskararen inguruko azterketa liburu batean jaso dute

Durango > 4

Platerueneko ekarpenak egiteko kanpaina azken txanpan sartu da

Herririk herri

Mediku kontsulta kendu egingo dute urtariletik aurrera

GARAI M.O.

Medikua ez da Garaiko kontsultategira gehiago etorriko. Abisu hori jaso dute udalean Osakidetzaaren partetik, zerbitzua sobera dagoela arrazoituta. Garaitarrek Berrizen daukate medikua, baina zita eskatuz gero, Garain egin ahal zuten kontsulta, astean birritan. Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu duenez, herritar askok Berrizera bajatzeko ohitura hartu dute, eta azken urtean medikua ia etorri ere ez da egin herrira. Baina Sarri-goitiak murrizketa gisa ikusi du Osakidetzaaren erabakia. Ondorioz, urtariletik aurrera Berrizera jo beharko dute garaitar guztiek. Hala ere, medikua etxera joateko zerbitzuak martxan jarraituko du.

Jolas piloa batu dute udalak abiatutako bilketa kanpaina

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Joan zen egunean abiatu zuten jolasak batzeko Zaldibarko Udalak martxan jarri duen kanpaina, elkartasuna eta birziklapena oinarri dituen. Asko izan dira euren ekarpena egin, eta ekimenean parte hartu duten herritarrek. Udalbatzar aretoa jendeak emandako jostailuz bete da asteon. Izan ere, bertan egin dute banaketa hasi aurreko sailkapena. Gizarte langileekin elkarlanean banatuko dituzte jolasak, beharritza duten herrikideen artean lehenengo, eta Caritas elkartera jotzen dutenen artean gero.

Teknologia berrien erabilera, gazteen arteko 'droga' berria

Teknologia berrien inguruko inkesta bat egin dute Amankomunazgoan



Ezkerretik eskumara, Izagirre, Sarrionandia eta Arana.

DURANGALDEA M. Onaindia

Konektatuta gaude. Teknologia berriak etorri zirenetik, eta, batez ere, mugikorrean Internet daukagunetik, mundu zabalagaz konektatuta bizi gara une oro. Harremanak, jolasak, apustuak... jardura ugari egin ahal dira mugikorretatik. Pauso horrek abantaila ugari dakartza, baina bizi ohituretan aldaketak ere eragin ditu. Ez al dakar teknologiaren menpeko izateko arriskua? Galdera hori egin dute Amankomunazgoko Adikzioen Prebentzioarako Zerbitzukoek, eta nerabeen artean kokatu dute euren kezka nagusia. Nerabeek daukaten erabileraz inkesta bat landu dute lehenengoz ikastetxeetan, eta, datuak ezagutu ostean, *droga* berriaren erabilera egokia lortzea helburu duen programa bat diseinatuko dute.

10 eta 20 urte arteko 1.773 ikasleek parte hartu dute Amankomunazgoak eginiko azterke-

tan, eta argi ikusten da txikitatik mugikorra darabiltela gehienek. %84,8k txata (Whatsapp eta Telegram aplikazioak, adibidez) erabiltzen du: %78k egunero. 10 urtekoen artean, %67k noizbait erabili izan du. Ikasleen %60 egunero ibiltzen da sare sozialetan (Facebook eta Twitter, esaterako), eta, 10 urtekoen kasuan, heren bat ibiltzen da. Gazteen %74k jolasten du bideo jokoetara.

Erabilera egokirantz

Baina zelan garatu erabilera egoki bat? Mugikorrak denbora larregi ez ibiltzeko gomendioa ematen diete ikasleei, Amaia Sarrionandia teknikariaren arabera. Txikiak direnean argazkirik ez bidaltzea proposatzen dute, eta sare sozialetan argazki eta datu pertsonalik ez publikatzea ere bai. Internetarako konexioagaz edozein webgunetan sartzeko arriskuaz berba egin du Arrate Arana

%84,8k
txata (Whatsapp eta Telegram aplikazioak, adibidez) erabiltzen du, eta %78k egunero

teknikariak: “Kontuz! Niretzat gauza batzuk gogorrak badira, eurentzat...”.

Gainera, nerabeen artean Whatsappak sortu ahal duen krontolaz ere ohartarazi du Aranak: “Whatsappak, gainontzekoek azkenengoz noiz erabili duten jakiteko aukera ematen du, eta horrek kontrol izugarria sortzen du”. Sarrionandia dioenez, gazteei azaltzen diete “komunikazioa ez dela berdina txat bidez edo aurrez aurre gaudenean”. Guztiek ez dute txatik-batzuek nahi ere ez-, baina drogen antzera, taldearen presioak asko eragiten du txata ipintzeko erabakian. Horregatik, autoestimua eta emozioen gestioa lantzen dituzte ikasleekin.

Edozelan ere, mugikorra tresna ona izan ahal dela uste du Sarrionandia, eta adierazi du gurasoen eta umeen arteko harremanak sendotzeko balio ahal duela. Gurasoen paperetik berba egin du Idoia Izagirrek: “Beldurrez begiratu beharrean, zergatik ez galdetu? Berak erakutsi ahal badit, interakzioa sortuko da, elkarrekin ikasiko dugu...”. Baina nerabezaroan inimitatea eta kontrola nahasten direla azaldu du Sarrionandia, eta, bizitzan legez, mugikorrean ere musturra larregi ez sartzeko aholkua eman du: “Nondik da biltzan jakin behar duzu, baina

ezin zara euren bizitza pertsonalean guztiz sartu”.

Heroinaz berbetan

Teknologia berriei gainera, substantziadun drogen inguruko ohiko inkesta ere egin dute teknikariek. Nabarmenezkoa da tabakoa eta alkohola kontsumitzeko adina atzeratu egin dela, eta haxix eta marihuanaren kontsumoa bajatu dela. Ikastetxeetan droga horien inguruan egiten dituzten saioetan heroina ere sartu dute aurretik. Izan ere, duela hiruzpalau hamarkada kalte handia eragin zuen droga berragertu da gizartean: “Ikusi dugu heroina berriro agertu dela inguruotan, eta berriro gabil-tza gure programetan sartzen. Ikasleen artean ez dago kontsumorik, baina gogoratzen hasi gara”, azaldu du Sarrionandia.

Gurasoen esku ere bai

Inkesta egiten den lehen aldia izan da, eta Amankomunazgoko teknikariek ez dute alarmarik sortu gura. Erabilera egokirantz joateko plan bat landuko dute, eta, irakasleen eta gurasoen ekarpena ere beharrezko



“Gure lana da, egoki erabiliz gero, tresna ona dela ulertaraztea”

ESTI URRUTXURTU

ikusten dute. Adibidez, urteroko Guraso Eskolan ere landuko dute gaia. Esti Urrutxurtu abadiñarra da eskola horretako partaideetako bat, eta begi onez ikusi du ikastaroa: “Guk zenbat eta gehiago jakin, gazteengana hurbiltasun bat sortuko da”. Whatsappen kasuan, norbera ere gogaitzen duela uste du, eta batzuetan deskonektatzea beharrezkoa edo “sanoa” dela dio. Baina alde ona ere aitortu dio aplikazioari. “Gure lana da, egoki erabiliz gero, tresna ona dela ulertaraztea, eta gu gara eredu”.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2014ko abenduaren 19a, 12. urtea - 571. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Ailegatu da azkenean Bizkaibus zerbitzua

Bilbogaz lotura zuzena dute Izurtzan eta Mañarian

DURANGALDEA M. Onaindia Astelehenean ailegatu zen, azkenean, Bizkaibus zerbitzua Izurtzara eta Mañarira. Herri bietako biztanleen aspaldiko eskaria izan da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko linea egitasmo berrian barneratu dute. Horrela, hemendik aurrera Bilbogaz lotura zuzena edukiko dute.

Edozelan ere, udalek uste dute zerbitzuak ez dituela izurtzaren eta mañariarren garraio beharrianak konpontzen. Izan ere, egunean hiru zerbitzu ba-

karrik egongo dira Bilbora joateko, eta beste hiru bueltatzeko. Mañaritik 06:40an, 07:40an eta 14:40an irtengo da autobusa, eta Bilbotik 15:30ean, 18:30ean eta 19:30ean.

Oraingoz, behintzat, badirudi lineak ez daukala erabiltzaile askorik. Arratsaldeko zerbitzua betetzen duen autobus gidariaren esanetan, bakan batzuk eroan izan ditu asteon Bilbotik Izurtzara eta Mañarira. Gidariaren ustez, informazioa zabaltea falta da.



Bizkaibus autobusa, Mañarian, hutsik.

Abadiño eta Atxondo arteko AHT zatia lizitatuko dute

DURANGALDEA M.O.

Abadiño eta Atxondo arteko Abiadura Handiko Trenaren zatia lizitatuko dutela iragarri zuen eguaztenean Mariano Rajoy Espainiako presidentek, *Berria.eus* atariak jaso duenez. EAJk eginiko kritika bati erantzunez egin zuen iragarpen hori Rajoyk. Informazioaren arabera, gaurko Ministerioen Kontseiluan onartuko lukete AHTaren zati horren lizitazioa, eta 116 milioi euroko inbertsioa izatea aurreikusi dute.

Antza denez, irailean Iñigo Urkullu lehendakariak eta Rajoyk egindako batzar baten ostean dator polemika. Urkulluk AHTaren proiektuan aurrerapausoak ematea eskatu zion. Rajoyk adierazi du badabilela hartutako konpromiso batzuk betetzen, eta lizitazio berriaren gaia ipini zuen horren adibide.

Abadiño-Atxondo tartearaz gainera, Arrasate eta Bergara arteko zatia ere lizitatuta da goela iragarri zuen Rajoyk.

Herriko mapa toponimikoa banatuko dute herritarren artean

ATXONDO Joseba Derteano

Atxondoko Udalak herriko mapa toponimikoa osatu du, eta urtea amaitu aurretik buzoiz buzoiz banatuko du, 2015eko egutegi batez batera. Herriko mapa toponimikoa egiten duen lehen aldia da.

Mapa horrek askotariko informazioa jasotzen du: kale izenak, bideak eta errekek, adibidez. Herriko baserri guztien izena eta kokapena ere biltzen ditu.

Mapa toponimikoak herriko baserri guztien izenak eta kokapena jasotzen ditu, besteak beste

Horregaz batera, udaleko webgunean (*atxondo.net*) mapa interaktibo bat sortzen ari dira, eta datorren urtean prest izatea da asmoa. Horrela, herriko edozein txokotara heldu gura duen edonork informazio zehatza izango du eskura.

Bigarren eskuko produktuekin 30 postutik gora, abuztuaren 28an

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko III. Truke Azoka eta bigarren eskuko azoka antolatuko dute abenduaren 28rako Mallabian. Herriko pilotalekuan atonduko dituzte azokan parte hartuko duten postuak. Azoka berezi honek goizeko 11:00etan irekiko ditu ateak, eta 14:30era arte egongo da zabalik. Truke azoka antolatu duten hirugarren aldia da hau. Bigarren eskuko azoka, berriaz, lehenengoz antolatu dute.

Umeentzat bereziki, jostailuak elkarren artean trukatzeko gunea ezarriko dute. Antolatzaileek diotenez, helduak etxeko tresnak trukatzera animatu nahi dituzte. Gainera, goiz osoan grafitigile batek euskararen aldeko grafitia sortuko du.

Umeentzat bereziki, jostailuak elkarren artean trukatzeko gunea ezarriko dute

irakurri⁴

aldiz ARINAGO

DURANGO

prakagorri.es

944 91 57 63

GABONETAKO IKASTARO TRINKOAK

Ulermen jasoko irakurketa azkarra..... 9:00 - 10:30

Ikas-metodo eraginkorrak..... 11:00 - 12:30

Egunak:

22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11

Izen-emate epea: abenduak 18ra arte

Adinak:

Irakurketa: 9 urtetik aurrera

Ikas-metodoak: 11 - 15 urte

Barrenkalea 20, Durango | prakagorri@prakagorri.es

Durango fracking bako herri izendatu dute

Lore baimena bertan behera uztea exijitu dute

DURANGO Markel Onaindia *Durango, fracking bako herria.* Durango horrela izendatzea erabaki zuten martitzenean Bilduk, Aralarrek eta PSE-EEK. Fracking Ez plataformak aurkeztutako mozioa babestu zuten, eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak gasa ote dagoen ikertzeko emandako Lore baimena bertan behera geratzeko exijitu zuten. Durango lurrak sartzen dira baimen eremu horretan, eta Durangaldean Saia, Mirua eta Sustraia eremuak ere aurreikusi dituzte.

Ezohiko gasaren ustiapena haustura hidraulikoz garatzeari deitzen zaio frackinga. Lurpean, sakontasun handiko geruzetarikin zulo bertikal bat egin, eta gero horizontalean jarraitzen dute. Ura gai kimikoekin presio

handian sartzen dute, eta ez-tanda horiekin gasa ateratzen dute. Sistemaren kontra dagoen plataformaren arabera, sistema kutsagarria da airearentzat zein urarentzat, eta arriskutsua izan ahal da pertsonentzat.

“Ikerketa sakonagoa”

Jeltzaleen babesa espero zuen Dani Maeztuk (Aralar): “Aldaketa klimatikoaren aurkako plan bat onartzea eta frackingaren alde egitea ez da zentzuzkoa”. Baina EAJ abstenitu egin zen. Goiztidi Díaz bozeramailearen esanetan, ados daude mozioaren funtsagaz, baina “ikerketa sakonagoa” behar dela uste dute. Jon Andoni del Amoren (Bildu) ustez, energiaren gaian zibilizazio erronka baten aurrean gaude,



Frackingaren kontrako plataformakoak, kanpainako prentsaurreko batean.

eta “eredu publiko, komunitario eta jasangarrirantz” jo behar da. Idoia Agorriak (PSE-EE) gogoratu zuen Frantzian nahiz Herbehereetan frackinga atzera bota dutela, eta “energia berriztagarrien alde” kokatu zen.

Juan José Gastañazatorreren (PP) iritziz, erreserbei buruzko azterketa bat egin behar da, eta “teknika hobetzen denean era-

baki”. Mozioaren kontra bozkatu zuten.

Mozioak herririk herri

Herririk herri mozioak aurkeztzen dabil Fracking Ez plataforma, Durangaldea fracking bako gune bihurtu guran. Mañarian, Iurretan eta Otxandion ere onartu dituzte dagoeneko, lehen kasu bietan EAJren babesagaz.

Udalak pobrezia energetikoaren kontrako kanpaina babestuko du

DURANGO M.O.

JAED ongintza elkarteak pobrezia energetikoa bizi dutenei laguntzeko kanpaina bat martxan ipini zuen azaroan. Izan ere, hainbat familia argindarra, gasa edo bero sistema ordaintzeko arazoekin bizi dira, eta askori zerbitzua moztu diete. Eustaten arabera, 2012an, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban 90.000 herritar zeuden egoera horretan.

JAEDek 6.000 euroko poltsa bat prestatu zuen laguntza bonuak emateko, baina laster agortuko zela aurreikusi zuen. Orain, udalak erabaki du 6.000 eurogaz lagunduko diola elkarteari; hori onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean, alderdi guztien adostasunagaz.

Udaleko kontuak eta soldatak laster ikusgai

Biscaytik fundazioagaz akordioa lortu du udalak

DURANGO M.O.

Udalaren datu ekonomikoak eta kargudunen soldaten zenbakekoa argitaratzea erabaki zuen udalak, eta, Aitziber Irigoras alkatearen arabera, seguruena urtarilean egongo dira ikusgai. Aldundiaren menpeko Biscaytik fundazioagaz akordioa lortu du udalak, fundazioaren plataforma digitala erabiltzeko. Beraz, publikatu beharreko datuak plataforman txertatzea bakarrik geratzen da, herritarren eskura egoteko.

Apirilean eroan zuten gaia udalbatzarrerara Bilduk eta Aralarrek, eta euren mozioa barik PSE-EEK aurkeztutako testu alternatibo bat onartu zuten. EH Bilduko alderdien eskaera soldata eta dietak argitaratzea zen, eta sozialistek beste hainbat datu gehitu zituzten zerren-

dara. Horrela, udal kontratazioak, proiektu urbanistikoak eta diru-laguntzak ere ikusgai egongo dira. Martitzenean EAJk, Bilduk, PSE-EEK eta Aralarrek onartu zuten Biscaytik egaz akordioa egitea. PPK ez: fundazioaren “eraginkortasun eskasa eta gardentasun falta” argudiatu zuen.

Tramiteak Internet bidez

Udal tramiteak Internet bidez egin ahal izateko proiektua martxan ipintzen dabil udala, alderdi guztien adostasunagaz, eta 2016rako aurreikusi dute. Biscaytikek doan eskaintzen du zerbitzu hori, baina, alkatearen arabera, udal webguneagaz bateraezintasunak daude. Horregatik, 108.000 euro inbertitutako dituzte aurten, eta beste 260.000 datozen urte bietan.

Beharginen kaleratzeak kritikatu ditu LAB sindikatuak

DURANGO M.O.

Landakoko igerilekuetako tabernan behargin bat kaleratu izana kritikatu du LAB sindikatuak. Taberna publiko hori Dendak Bai elkarteak kudeatzen du, eta elkarteari zein udalari kontuak eskatu dizkie sindikatuak. Gainera, behargin hori berriro hartzea eskatu du. Salaketa ez da horra mugatzen; izan ere, LABen arabera, beharginak soldatak kobratu barik daude.

Bestalde, Aki brikolaje dendan ere kaleratze bat egon dela jakinarazi du LABek. Antza denez, LABeko afiliatu bat da bota dutena. “Bitxia da, gure afiliatua hauteskunde sindikalak sustatzen egon delako”, ohartarazi du sindikatuak. Horregatik, “kaleratze apetsua” izan dela uste du, eta behargina lanera bueltatzea exijitu du.

Plateruena, ekarpenen azken txanpan sartuta

31n amaituko da Plateruenari laguntzeko kanpaina

DURANGO M.O.

“Oraintxe da ekarpenak egiteko azken txanpa”. Platerueneko kideek horrela gogoratu dute abenduaren 31n amaitzen dela kulturagunearen aldeko borondatezko lan eta diru ekarpen kanpaina. Proiektu bideragarria dela berretsi dute, baina sorreratik bankuekin duen

zorren azken zatia aurre egitea beharrezko du. Hainbat ekintza egin dituzte kanpainarako: mahaiak ipini, telefono deliak egin, *Hegoak erein* ikuskizuna eskani... Azken egun hauetan ere ekarpenak egitera animatu dituzte herritarrek, Plateruenean bertan edo www.plateruena.net webgunean.



‘Hegoak erein’ ikuskizunean parte hartu zuten artistak. Saioa ‘Gauilunak’

A. Urreta podólogo

Atinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behe - 48200 DURANGO

Tel./Faxa: 946 215 404

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673

www.zarateylexpe.com

Ez dago ezinezkorik

FORD FOCUS BERRIA

➤ **Lagunduriko aparkatze sistema**

Ikusi ere egiten ez diren lekuetan aparkatu daiteke? Ford Focus berriarekin posible da. Irudikatu ezinezko tokiak aurkitzen ditu, eta bertan aparkatzen du. Urrutira joaten lagunduko dizuten hainbat aukera ditu Ford Focus berriak; hau horietako bat besterik ez da.

ford.es

12.900€ edo 120€ hilean.

Sarrera 3.165€. Azken kuota 7.636€. 37 hilabete.



ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-tik 6,8 litro 100 kilometroko bitartera. CO2 emisioak 105etik 159 g/km-ra.

EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate atzeko kristal-jasogailuekin eta lainotako argiekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Classic' kanpainaren bitartez finantziztearren; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Amaierako prezio 12.990,31€. Sarrera: 3.165€. Azken kuota: 7.636€. 37 hilabete. Zabaltze kuota: 334,06€. TIN %7,90. TAE %9,73. Epeka prezio osoa 15.455,31€. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modeloak ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Elorrioko hizkera liburu batean batu dute, eta sarean dago ikusgai

Elorrioko nagusien elkarrizketetan oinarritzen da 'Elorrixoko berbetia' liburua



Aurkezpenera joan zirenei liburua banatu zieten. Kultur etxean dago salgai, bost euroan.

ELORRIO Amaia Ugalde Herrian mantentzen diren berbak, galtzeak daudenak, esamoldeak, aditz formak... Elorrioko euskarak baditu bere berezitasunak, eta ezaugarri horiek kontsultatzeko bidea dago orain. *Elorrixoko berbetia* liburua aurkeztu dute, baita Interneten liburuko materialagaz atondutako webgunea ere.

Badihardugu euskara elkarreko Aintzane Agirrebeña eta Juan Martin Elexpuru ibili dira

herriko euskara batzen. Agirrebeña azaldu duenez, lanaren oinarria Ahotsak ekimenerako adineko pertsonen egindako elkarrizketak izan dira. Horretaz gainera, herriko lantalde baten laguntza izan dute gramatikaren atala osatzeko.

Interneten dago liburuko material guztia, eta baita liburua bera deskargatzeko modua ere. Elkarrizketen bideoak ere badaude <http://elotop.net/euskara> webgunean.

'Etxia' eta 'etxie'

Elorrioko euskarak ezaugarri batzuk ditu, baina leku guztietan ez da berdina berba egiten. San Agustinen eta Leiz-Miñotan, adibidez, *etxie* esaten dute, eta *-ie* amaiera ohikoa da izenetan. Herrigunean eta auzo gehienetan, aldiz, *etxia* esaten dute. Aditzari dagokionez, Agirrebeña *xata* eta *xako* formak nabarmendu ditu: "Horiek Elorri eta Oñatin bai, baina ez dira beste leku askotan entzuten".

Elikagai Bankurako janari bilketa egingo dute Gabonetan

ELORRIO Markel Onaindia Elorrioko Elikagai Bankuak janari bilketa antolatu du Gabon buelta honetarako, eta herritarrei dei egin die elkartasun dinamika horregaz laguntzeko. Datorren astelehenean uztarrilaren 5era bitartean jasoko dituzte elikagaiak Lourdesko Ama ikastetxean; goizez 10:00etatik 13:00etara egongo dira, eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. Zapatuetan goizez bakarrik jasoko dituzte jakiak, eta jaiegunetan jai hartuko dute. Sagastizabal dendan eta Urizar harategian ere utzi ahaliko da janaria.

Baina ez da hori Elorrioren egingo den elkartasun ekintza bakarra. Izan ere, Lajwad elkarreko Saharako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina babestu du, eta gaur eta bihar Eroski supermerkatuan produktuak jasoko dituzte elkarreko kideek. Institutuko eta Txintxirri ikastolako ikasleak ere ekimenean parte hartzen dabilta.

Janari bilketa Saharako errefuxiatuei laguntzeko

IZURTZA J.D.

Durangoko Herria auzo elkarreko Saharako errefuxiatuei laguntzeko janariaren eta lehen premiazko produktuen bilketa egiten du urtero. Aurreko aldiaren egin izan duen moduan, Izurtzako Udalak aurtengo ere bat egin du ekimenagaz. Horrela, janariak eta produktuak uzteko bilgune bi bideratu di-

Udaletxean eta kontsultategian utzi daitezke janari edo produktuak

tuzte: udaletxea bera (11:30etik 15:00etara) eta kontsultategia. Besteak beste, azukrea, atuna eta konpresak utzi daitezke toki horietan.

Durungaldean eta Euskal Herri osoan batutako produktuekin Karabana Solidarioa abiatuko dute otsailean Tindufeko (Aljeria) kanpalekura.

Ordentza fiskaletako zerga eta tasetan ez da igoerarik izango

Ondasun higiezinaren gaineko zergen hainbat hobari gehitu ditu udalak

OTXANDIO Joseba Derteano Ordenantza fiskaletako tasetan eta zergetan ez da igoerarik izango 2015ean. Erabaki hori hartu dute azken udalbatzarrean. Ondasun higiezinaren gaineko zergen (OHZ) hobari berriak gehitu dituzte, eta, hilerriko zerbitzuan zein animaliak bide publikoetatik jasotzekoan sortutako aukera berriak ere arautu dituzte ordenantza fiskaletan.

Ondasun higiezinaren gaineko zergen, aurretik zeuden hobariez gainera (familia ugari eta

etxebizitza sozialei, esaterako), eguzkiaren energia aprobetxatzeko eta elektrizitatea sortzeko bestelako sistemak instalatzen diren ondasun higiezinarentako hobari berriak sortu dituzte: hoberia %50ekoa izan ahaliko da, instalazioan erakunde eskudunak homologatutako kolektoreak erabiltzen baditu. OHZan hobariak daude Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Programan parte hartzen duten jabeentzat (%50eko) eta hondamendi naturalak izandako eremuetako higiezinarentzat:

azken kasu horretan %99ko hoberia lortu ahaliko da.

Mundutik Euskal Herrira

Herriko kulturen arteko elkarbizitza sustatzeko helburuagaz, *Euskal Herria helmuga* dokumentala eskainiko dute gaur, 19:30ean, kultur etxean. Periko Salaberria eta Kolonbiatik etorritako euskalduna den Luz Amparo Pimiento izango dira, Petra Elser Banaiz Bagara elkarreko zuzendariagaz batera. Aldibereko itzulpena ahalbidetuko dute.

Liburu digitalak hartu ahal dira Udal Liburutegian

Interneteko zerbitzurako bazkide izan behar da

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udal Liburutegian liburu digitalak maileguan hartu ahaliko dira aurrerantzean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren liburutegi zerbitzuari esker, www.eliburutegia.net atarian topatu ahaliko ditu bakoitzak bere intereseko liburuak. Liburu horiek *streaming* bidez irakurri ahaliko dira, eta ordenagailuekin edo gailu mugikorrekin ere bai.

Horretarako beharrezkoa izango da Mañariko liburutegiko bazkide izatea. Webgunean sartuz gero, gustuko liburua au-

keratu, eta dokumentua norbere gailura jaitsi ahaliko da. Liburutegiko arduradunek azaldu dutenez, mailegu zerbitzu honi buruzko informazioa gura duenak liburutegian bertan eskatu dezake.

'Streaming' bidez irakurri ahaliko dira, eta ordenagailuekin edo gailu mugikorrekin ere bai



GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena ren arrakastaren arrazoiak:

Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
ASKOTARIKO tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
Mugarra alderako **BISTA** garbiak
Barneko **PLAZA** zabala
Auzoari **BURU EMATEA**
Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
SALTOKIAK eraikinetik oso gertu
Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
ARRISKURIK GABEKO aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvía.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa

Genero indarkeriaren aurrean amorrua agertu dute herritarrek

Alejoren eta Rodriguezen hilketa matxistak salatu zituzten Abadiñon



Traña-Matienako plaza bete zuen mobilizazioak: bertan hasi eta amaitu zen manifestazioa.

ABADIÑO Itsaso Esteban Mari Luz Alejo eta Amalia Rodríguez ama-alaben hilketa bortitzetatik bi egunetara, Ertzaintzak hiltzailea izatea egotzita Mari Luz Alejoren senarra atxilotu ondoren, manifestazioa egin zuten Traña-Matienan. Emakumeen Mundu Martxan elkarturiko mugimendu feministek deitu zuten protestara.

Emakumeon kontrako indarkeriarik ez! lelopean elkartu ziren ehunka herritar, Traña-Matienako plazan hasi eta amaitu zen manifestazioan. Adin guztietako herritarrek batu ziren indarkeria matxistaren kontrako aldarria zabaltzera, eta baita udaleko zein beste erakunde publiko batzuetako hainbat ordezkari ere. Kioskoko plaza bete

egin zuten herritarrek, mugimendu feministaren gaitzespen berbak entzuteko: kasuari eman zaien trataera publiko zein mediatikoa salatu zuten, eta gertakaria genero indarkeriagaz lotzeko hainbatek hasieratik erakutsitako erresistentzia gogor kritikatu zuten. “Kontzientte gara emakumeon aurkako indarkeriak ez duela etenik,

eta horren aurrean ezin dugu amorrua, nekea eta haserrea besterik adierazi”, azpimarratu zuen Durangaldeko mugimendu feministak.

Bariku eguerdian gaiaren inguruan egin zuten ezohiko udalbatzarrean, prozedura judizialean akusazio partikular gisa azaltzeko prestutasuna agertu zuen, aho batez, Abadiñoko Udalak. Bestalde, “komunikatuetatik harago joateko konpromisoa” hartzeko asmoa agertu zuten hautetsiek. Besteak beste, genero indarkeriaren gaiaren inguruko batzorde berezia sortuko dutela iragarri zuten.

Koordinazioa helburu

Batzordearen eraketaz galdetuta, Yanire Moreno Berdintasun Saileko zinegotziak asteon esan du udalean ordezkariak daukaten hiru alderdietako zinegotzi banagaz osatu dutela batzordea. Bertan eta udaleko beste batzorde batzuetan genero indarkeriari aurre egiteko egiten den lana koordinatzea izango da batzorde berezi honen egitekoa. Emakumeen jabekuntza jorratzen ibilbide luzea du Abadiñok, eta, hori horrela izanik, genero indarkeria horren era bortitzean sufritu izana nola den posible aztertu, eta hartu beharreko neurriak adostu gura dituzte.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Pobrezia energetikoa eta miseria politikoa

Negu honetan, Durangon (bai, Durangon ere bai), hainbat familiak eta pertsonak erabaki egin beharko dute: hipoteka ordaindu edo berogailua piztu. Pobrezia deitzen zaio horri, kasu honetan energia alorrean azaltzen den pobrezia, baina lotura zuzena daukana gaur egungo egoera ekonomikoarekin edo, hobe esanda, gaur egungo eredu sozioekonomikoarekin.

Energia izatea ezinbestekoa da gure bizimoduan, osasuna zaintzeko eskubidea edo hezkuntzarako eskubidea ezinbestekoak diren lez. Baina energiaren kudeaketa guztiz pribatua da. Horrela, energia elektrikoaren arloa bost enpresen interes ekonomikoen menpe dago.

Enpresek etekin ekonomikoa handitzea dute helburu, eta hori zilegi da; zilegi ez dena da alderdi politiko batzuek –bereziki PNVk, PPK eta PSEK– egin dutena, alegia, interes publikoko sektore bat enpresa pribatuen eskuetan uztea. Noski, alderdi horiek euren interesak ondo babestu dituzte; ez herritarren interesak, euren agintarien interes partikularrak baizik.

Ez da kasualitatea, Josu Jon Imaz Petronorreko presidente izendatzea eta gaur egun Repsoleko administrazio kontseiluan egotea. Era berean, Felipe González eta Aznar izendatu zituzten Gas Naturaleko eta Endsako administrazio kontseiluko kide. Ate birakariaren zerrenda bukaezina da. Ohikoa da administrazio publikoan egon diren pertsonak, euren zeregina interes pribatuak defendatzea izaki, gerora, ondo ordaindutako jesarleku bat lortzea. Eta horrek izen bat dauka: miseria.

Beraz, pobrezia energetikoa dago, miseria politikoa existitzen delako. Nik gaurko honetan ere nire amaren esaldi bat ekarriko dut gogora: pobeak bai, miserableak sekula ere ez.

Txakurrak solte ibili daitezkeen guneak

Hamabi gune atondu eta identifikatu ditu udalak

ABADIÑO I.E.

Jabeek txakurrak solte eduki ahalgo dituzten hamabi gune atondu eta seinaleztatu ditu Abadiñoko Udalak. Animaliak Eduki eta Babesteko Udal Ordenantzari eranskin bat gehitu diote, berritasun hori ezartzeko. Orduetegi bat ezarri dute gune horietariko gehienak erabiltzeko: herrigunetik alden duen dauden guneetan edozein ordutan egon ahalgo dira txakurrak solte. Traña-Matienan, Eroski ondoko erreka ertza eta Arzubiako industrialdea izango

dira ordutegirik bako guneak; eta, Zelaietan, kiroldegi ondoko berdegunea eta Arrankurri.

Bestalde, herriko beste hainbat gunetan, gauez (20:00etatik 08:00etara neguan; eta 22:00etatik 08:00etara udan) baino ezin go dira ibili txakurrak solte. Arraza arriskutsuen zerrendan dauden txakurrak izango dira salbuespena: horiek ezingo dira inon ere solte eduki. Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu duenez, “jabeek obligazioak ere badituzte, eta zorrotz zainduko dugu zehatz betetzen dituzten”.

Jaki freskoak erosteko laguntza txartelak

Beharrezana duten familiei laguntzeko ekimena

ABADIÑO I.E.

Gabonetan jaki freskoak erosi ditzaten, 5 euroko erosketa txartelak banatuko dizkie Abadiñoko Udalak horretarako baliabide ekonomikorik ez duten 150 herritarri. Udalak lehenengoz ipini du kanpaina hau martxan, eta 2.000 euroko aurrekontua dauka ekimenak. Azken urteetan udalak Gabonetan banatu dituen janari poltsetan sartzen ez ziren jakiak –okela, arraina eta fruta– eskuratzeko aukera eman gura die Abadiñoko Udalak beharrezana dutenei.

5 euroko balioa duen txartel bat jasoko dute beharrezana duten familiek, eta identifikaturiko herriko dendetan erabili ahalgo dituzte txartelak. Javier Crespo Gizarte Ekintzako zinegotziaren berbetan, “bosna euroko txartelak banatuz gero, familiek euren erosketak hobeto kudeatu ahal izango dituzte”. Zabaldu duten oharrean esaten denez, “nahiz eta oraingoz Gabonei begirako ekimena izan, urteko beste sasoi batzuetan ere ekimen hau garatzea komeni ote den aztertzen gabilta”.

JOSE LUIS OTAMENDI
kapital publikoa
Susa

JOSE LUIS OTAMENDI
POESIA ERREZITALDIA
Abenduaren 29an,
astelehena, 19:00etan.

DOAN

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

urtiaga
Proiektu eta Erreformat, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU,
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea, 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Zientzia lehiaketa irabazi dute Zornotzako gazteek

Karmengo Ama ikastetxeko gazteak izan dira onenak Innobasquek antolatutako txapelketan



Karmengo Ama ikastetxeko gazteak eta irakasleak.

ZORNOTZA Joseba Derteano Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak 10-16 urte arteko gazteen artean zientzia sustatzeko antolatzen duen First Lego League Euskadi lehiaketa Karmengo Ama ikastetxeko talde batek irabazi du aurten. Joan zen asteburuan Zamudio-ko parke teknologikoan jokatu zen finala, eta, lehiaketa osatzen zuten proba guztiak batuta, puntuaziorik altuena jaso zuen.

Zazpi ikasleek osatu zuten taldea: Iker Quintanillak, Peio Menak, Maialen Menak, Peio Quintanank, Imanol Herzogek, Julen Andaluzek eta Ander Iturratek. Jabier Mena eta Edurne Oribe irakasleek jardun dute gazteen aholkulari lanetan.

Lehiaketa hiru arlotan zegoen banatuta: proiektu zientifikoa, robota eta bere erabilera, eta lehiaketan zehar erakutsita-

ko balioak (adiskidetasuna eta informazioa partekatzeko prestutasuna, adibidez).

Proiektu zientifikoa, mugikorretako Whatsapp aplikazioak gazteen artean eragin dezakeen *ziberbullying*ari aurre egiteko alternatiba bat aurkeztu zuten: mezuetan berba iraingarriak detektatu, eta hirugarren bati (gurasoei edo tutoreei, esaterako) automatikoki birbidaliko liokeen aplikazio posible bat. Horrelako neurriak hartu daitezkeela erakustea zen asmoa, eta adierazi dute, oraindik egin ez bada, borondate falta dagoelako dela. Beste proba batek robot bat diseinatzea eta lehiaketan hainbat misio gauzatzea izan zituen helburu: objektu bat toki batetik bestera mugitzea, adibidez. Martxoan Tenerifen izango den Espainiako txapelketan parte hartuko dute.

Eskolatik jantokirako bidea estaliko dute

Herri batzarretan hainbat inbertsio onartu dituzte

BERRIZ Amaia Ugalde

Eskolatik jantokirainoko eskaileretan aterpea ipiniko dute datorren urtean. Hori izan da inbertsioen gainean egin dituzten batzarretan onartutako ekimenetako bat. Izan ere, azken asteotan parte-hartze foroak egin dituzte 150.000 euro nora bideratu erabakitzeke.

Herriguneko inbertsioen batzarretan 100.000 euro nora bideratu izan dute eztabaidagai, eta auzuneetako batzarretan, 50.000 euro. Herriguneari dagokionez, aterpea eraikitzea

onartu dute inbertsioen artean, eskolatik jantokira joaterakoan umeak ez bustitzeko. Gainera, egurrezko jarlekuak ipiniko dituzte, eta orain dauden harritzko jarlekuei egurra jarriko diete.

Futbol zelaiko aldageletan berogailua jartzea ere onartu dute, futbol taldeak horrela eskatu duelako. Azkenik, Zengotita eta Iturritza kaleen bidegurutzeak eraikinean grafiti bat margotzea erabaki dute batzarretan. Herriko arkitekturari kolorea ematea eta horma hori txukuntzea da asmoa.

Arriaundin LABeko kide bat kaleratu dute

Kaleratua “presioengatik” bajaran zegoela dio LABek

IURRETA Markel Onaindia

LABek informatu duenez, Arriaundi okindegian sindikatu horretako afiliatu bat kaleratu dute. Lehenago enpresako ordezkari ere izandakoa da behargin hori: “Enpresari kontra egiteagatik ezaguna izan da, eta azpijokoak sistematikoki salatu izan ditu”. LABen arabera, behargin hori bajaran zegoen, “etenbako presioengatik”.

Sindikatuak prentsa oharrean dioenez, arrazoi ekonomikoak izan ei dira kaleratzearen

kausa. LABekoek gogor egin dute berba: “Ez dirudi gerentearen soldata, 3.000 euro ingurukoa, horretarako arazo denik, ezta inguruan mugitzen diren diru beltzez beteriko gutunazalak ere”. Langileen esku-bideen alde lanean jarraituko dutela esan dute: “Ez dugu onartuko beharginak belurtzeko asmorik”. Botatako behargina berriro hartzea exijitu du LABek, eta, gainera, ELA eta CCOO kritikatu ditu, kalera-tzea ez dutelako salatu.

> DURANGALDEA ASTEON

Q ziurtagiria udal euskaltegiarentzat

DURANGO > Kudeaketaren kalitateagatik eskaintzen den Euskal saria jaso du Durangoko udal euskaltegiak. Hain zuzen ere, zilarrezko Q ziurtagiria eskuratu du. Sari banaketa ekitaldian egon ziren euskaltegiko zenbait irakasle eta ikasle, baita Jon Kepa Garro euskaltegiko erakunde autonomoko presidentea ere.

Kantutegia berrargitaratu dute

BERRIZ > Gabon giroarako proposa den kantutegia berrargitaratu du Berrizko Udalak, eta udaletxean bertan dago salgai 5 euroren truke. Ikerketa lanari esker, 400 abesti baino gehiago batu dituzte kantutegian. Tartean daude, esaterako, Berrizen grabatutako kantak, Gabon kantak, eta ume txikiekin abestekoak.

Gazte eta umeen Gabonetako jaialdia

DURANGO > Landako Gunean ospatuko dute, domekan, Tronperrik antolatu duen 47. Gazte eta Umeen Gabon Kantan Jaialdia. Tronperri eta Txorritxu Alai dantz taldeek; San Jose Jesuitak, San Antonio Santa Rita eta Lauaxeta ikastetxeetako ikasleek; eta Iñurri Scout eta Lantegi Batua-keko kideek hartuko dute parte ekimenean.

Iritzia



astekaria@anboto.org

asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

...eta Urte ASKOTARAko!

DIRU EKARPEN ETA BORONDATEZKO LAN KANPAINA

Plateruenak hamar urte beteko ditu udazken honetan. Sasoi seinatu eta aldakorrotan, urteurren osoa daramagu zilarberritzen: Durangaldeko sortzaile eta elkarteekin kultur egitasmoaz gogoetatu dugu, eta herri-eragileen parte hartzea hobetzeko lan-taldeak sortu; Durangoko Udalarekin ere partekatu dugu hausnarketa hori, kulturgunearen kudeaketa bideragarri izan dadin baldintza hobeak adosteko. Orain herritar guztiei dei egin gura dizuegu Plateruenean parte hartu dezazuen, kultur egitasmoak gauzatzeko borondatezko lanean jardunez zein kulturgunearen etorkizuna ziurtatzeko diru ekarpena eginez.



www.plateruena.net

> Berbaz

Iñaki Pereda García | Arkeologoa | Bilbo, 1974

“Plaza azpian aurkitutakoagaz Otxandioren garapena ikusi daiteke”

Abuztutik hona Otxandioko plaza izan da Iñaki Pereda arkeologo bilbotarraren bigarren etxea



> BERBAZ Jone Guenetxea
Otxandion historiak lurpean utzitako arrastoak ikertzeari ekin dio Iñaki Pereda arkeologoak. Hainbat hilabetetan, plazan, lokatz artean aurkitutakoa zer den bertatik bertara azalduko die herritarrei. Bere lana pasioz bizi du, eta ilusio horregaz erantzun die galderei. Azterketaren ondoren, udalak plaza konpontzeari ekingo dio.

Non kokatu duzue azterketa arkeologikoa?

Otxandion lehenengo lanak 2001ekoak dira. Hainbat zundaketa egin genituen uriaren ezaugarri arkeologikoak aztertzeko. Ondoren, orube batzuetan, Andikona plazan, esaterako, beste ikerketa batzuk egin ditugu. Oraingo honetan plaza nagusian ibili gara. Konponketei ekingo diete, eta aurretik egoeraren balarazioa egin dugu. Aldundian proiektua aurkeztu ondoren, abuztuaren 4an hasi ginen lanean, eta orain arte jardun dugu. Lana luzatu egin da, elementu jakin batzuk aurkitu ditugulako.

Aurkikuntza horiekin zer eza-gutu dezakegu?

Otxandioren ezaugarri kulturalen eta herriaren okupazio faseen inguruan gehiago sakondu dezakegu. Plaza herriko espazio zentrala da. Herriaren okupazioaren laburpen bat da. Otxandioren garapen osoa ikusi dezakegu bertan.

“*Erdi Aroko hobi bat aurkitu dugu, eta ez genuen horrelakorik aurkitzea espero*”

“*Eraikin handi baten arrastoak aurkitu ditugu; baliteke jauregi batenak izatea*”

Ikerketa honek zer balio izan dezake Otxandioren historian? Oinarritzkoa da. Plaza herriaren bihotza izan da, eta aurkikuntza honegaz herriaren eraldaketa ezagutu dezakegu. Etorkizunera begira beste azterketa batzuk planifikatzeko ere balio dezake.

Nondik hasi daiteke aurkitutakoaren ondorioak ateratzen? Hiru momentu garrantzitsu daude: Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

Erdi Aroko zein elementu aurkitu duzue?

Erdi Aroko hobi bat aurkitu dugu. Ikuspuntu dokumental eta bibliografikotik, ez genuen horrelakorik aurkitzea espero. Idatzizko testuetan ez da agertzen. Hala ere, sarritan arkeologian kultura materialak beste ikuspuntu batzuk ematen ditu.

Hobiarena aurkikuntza garrantzitsua al da?

Erdi Aroan urietan edo gazteluetan hobiak ohiko elementuak ziren. Gipuzkoan, beste hobi batzuk aurkitu dira, Tolosan eta Elgoibarren, esaterako. Bizkaian, berriz, orain arte Urduñan baino

ez da horrelako hobirik aurkitu. Zentzu horretan, aurkikuntza esanguratsua da, planifikazio garrantzitsu bat eskatzen duen obra kolektibo bat delako. Hobi hau eraikitzea lan gogorra izan zen. Ikusi beharko dugu norantz doan, inguru batera edo bestera doan.

Erdi Aroko zer edo zer gehiago aurkitu duzue?

Posteak sartzeko zulo batzuk agertu dira. Eraikuntza batzuen egiturenak dira, baina oraindik ez dakigu zeren arrastoak diren.

Aro Modernoan eraldaketa handia gertatu zen.

XVI. mendetik aurrera eraldaketa urbanistiko garrantzitsuak gertatu ziren. Ordura arte, hobiak hiriko espazioa bitan zatitzen zuen. Bata, hiriaren ingurua eta, bestea, elizaren ingurua. Aro Modernoaren hasieran, hobia bete egin zuten. Une horretan hasi ziren XVII. mendean izan zen plaza planifikatzen. Era berean, plazaren alde batean forja bat zegoela dirudi.

Gurdien arrastoak ere aurkitu dituzue.

Horiek XVII. mende aurrekoak dira. Ematen du XVI. mendean, plazaren alde batek irteera zuela egurraren, ikatzaren eta harrobien hornidurarako. Gurdien arrastoak agertu dira, gurpilek arrastoa utzi izan balute bezala. Horren gainean, beranduago bide bat agertu da. Bigarren mailako bide hori gaur eguneko Bolaleku kaletik pasatzen zen, eta San Bernabe ingurura zihoan. Hori herriaren birika bat izango litzateke.

Jauregi baten arrastoak ere aurkitu dituzue.

Eraikin handi baten egituraren arrastoak aurkitu ditugu. Iturriak dio Otxandioko plazan jauregi bat zegoela eta 1640an eraitsi zutela. Ikusi dugunaren arabera, litekeena da Iturriak aipatutako jauregi horrenak izatea. Eraikin handi bat izan arren, badirudi eraikin horrek ez duela iraun. Posible da guztiz eraiki ez izana. Beraz, plazan elementu asko izan dira, eta eraldaketa handia izan du.

Aro Garaikidean, zelako aldaketak gertatu ziren plazan?

Aurreko sasoiko elementu guztiak bertan behera gelditu ziren. Tailerra eta lonjak deuseztu egin ziren, eta espazioa urbanizatzeari ekin zioten. Euste-hormak jarri zituzten, lurra eroan zuten, eta gaur egungo espazioa sortzen hasi ziren. XIX. mendeko espazioa sortzen hasi ziren: pilotalekua eta pasealekua, esate baterako. Espazio garden bat eraki zuten, herritarrek gozatzeko.

Sasoi horretan, plazan zelako ekintzak garatzen ziren?

Sasoi horretako elementu batzuek harritu egin gaituzte. Ematen du labe bat egon zela. Posteak sartzeko zulo batzuk ilaran aurkitu ditugu. Dokumentazioak dioenagaz bat eginda, baliteke inguru horretan zein plaza egon izana. Agian, ez zezenketa tarako. Izan liteke sokamuturra edo horrelako ekintzaren baterako balio izana. Gainera, horrek ekintza komertzialetarako ere balio zezakeen, ganadua gordetzeko, esate baterako.

Zein da ikerketaren hurrengo urratsa?

Orain emaitza arkeologikoen inguruko txostena osatuko dugu, eta Aldundiak aztertu egingo du. Horrela, Aldundiak udalari bidaliko dio plaza horretan hartu beharreko neurriei buruzko txostena. Udalak emaitzak kontuan hartu eta gero, obra baimena izango luke lanei ekiteko.

Kristina Mardaras Sedrun | Bertsozalea | Iurretan, 1948

“*Barruan daroat bertsolaritza: maiteminduta nauka proiektu honek*”

Kristina Mardarasek jantziko dio txapela Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazleari biharko finalean

➤ **BERTSOLARITZA** I. Esteban
Zelan hartu duzu 2014ko Bizkaiko bertsolari onenari txapela jantzeko proposamena?

Sorpresa handia izan da; izan ere, aurten txapela nork jantzi zezakeen pentsatzen hasia nintzen. Askok emozionatu nintzen Eneko Abasolo *Abarkas* eta Unai Iturriaga bertsolariak, eta Ione Narbaiza Bizkaiko Bertsozale Elkartearen ordezkaria etxera etorri zitzaizkidanean irabazleari txapela ipintzeko proposamena-gaz. Elkarrekin proposatuz gero, ez dago ezetz esaterik.

Harreman estua eta aspaldikoa duzu elkarrekin, ezta?

Bai, oso. Bertsozale Elkartearen sortzaileetako bat izan nintzen, eta nire bizitzako proiektu bat da. Barruan daroat bertsolaritza; maiteminduta nauka proiektu honek. Proiektu handia da, eta, oso gustuko dut; besteak beste, auzolanean eta boluntarioen ekintari esker egiten duelako aurrera. Hizkuntzari bultzada inpor-

tantea eman dio: euskaldunona ahozketasunaren kultura da, eta bertsolaritzak bultzatu egiten du hori. Gainera, Euskal Herri mailako proiektua da, eta hori ere oso beharrezkotzat daukat.

Elkarrekin egiten duen lana ondo ezagutzen duzu. Horrek bereziki betegarri egiten du txapela emateko ohorea izatea?

Eskatu zidatenean emozionatu egin nintzen, eta oraindik ere asko emozionatzen naiz. Horren inguruan jende asko mugitzen dela ikusten dut. Jendeak babestu egiten du proiektu hau. Euskaraz egiten den edozein ekintza ez da gai 5.000 lagun mugiarazteko: bertso final bat bai. Jendea isilik egoten da hizkuntza baten bueltan, eta miresmen handiz. Bestalde, urte guztikoa da txapelketaren muntaia: gai-jartzaileen taldea, bertso eskoletakoek antolatzen dituzten saioak, epaileen jarduerak... Ezkutuko lan handia dago txapelketa honek aurrera egiteko. Horretan bat gehiago



sentitzen naiz ni, ez bereziki nor txapela ipintzeko.

Txapelketaren ‘#Josi’ leloak eta irudiak elkarlan horri egiten dio erreferentzia, hain zuzen.

Oso ondo aukeratu da. Askok gustatzen zait, koloretsua delako eta aniztasuna islatzen duelako: oihaltzeko ideia desberdinen agerpena, sexu bietako partaideak eta abar islatzen dituzte. Aniztasuna, bizitza, erritmo des-

berdinak... Esangura handikoak dira irudia eta leloa.

Zelako txapelketa izaten dabil?

Saio batzuk biribilagoak izan dira beste batzuk baino. Saio onenetan lehenengo sailkatutik azkenengora hamar puntuko aldean egon da. Beste saio batzuk gorabeheratsuagoak izan dira, oihakoak ez diren bertsolari batzuk entzun ditugu... Joan naizen guztietan entzun ditut perla batzuk: beti dago zer edo zer bitxia, inpresio ona egiten dizuna.

Zeren bila joaten zara txapelketako saioetara?

Lehenengoz parte hartzen duten zer ideia eta modu dakarten ikustea gustatzen zait. Ideia freskoak dakartzaten bertsolariak ditut gustuko, ironia darabiltenak... Aurten Imanol Uribe eta Xabat Gallettebeitia oso inpresio ona egin didate. Oihana Bartrari ere igarri dizkiot hobetzeko ahalagin handia eta freskotatua. Gozatu du, eta txapelketako zurruntasunaren aurrean arnasa eman du. Sorpresen bila noa, eta Iratxe Ibarra ere harritu nau: gauzak esateko orduan, ausardia eta askatasuna nabaritu dizkiot, eta ilusioa egin dit. Entzuleok ez ezik, uste dut azken aldian epaileek ere aintzat hartzen dituztela ausardia, burutazioak eta bat-batekotasuna.

Epaile ibilitakoa ere bazara...

Bai, urte askoan ibili naiz Durangaldeko kanporaketetan epaile

lanetan. Oso lan zaila da epaileek egiten dutena: bizkortasun handia eskatzen du. Bertsoa jarraitu behar duzu, eta, aldi berean, apunteak hartu behar dituzu. Gero, horren arabera, oso azkar, puntuazioa eman...

Zelakoa aurreikusten duzu biharko finaleko saioa?

Saio ona eta freskoa izango dela uste dut. Arkaitz Estiballesek egun ona badauka, sailkapenean aurrean ikusten dut. Etxahun Lekue ere oso ondo ikusi dut kanporaketetan, askeago. Ez nuke esango Iratxe txapeldun izango denik, baina seguru nago saio ederra egingo duela. Onintza Enbeitaren kalitatea ere ezaguna dugu, eta, gainera, bigarren zentzuekin gauza politak egiten ikusi dut... Oso seguru ikusten dut Jone Uribe ere: eta ironia fina erabiltzen daki. Oihana Bartraren freskotatua ere gozatu ahalko dugu, seguru. Fredi Paia edozer egin dezake, eta uste dut txapela irabazi dezakeela; oso bat-batekoa da, euskara oso ona darabil. Eta Xabat Gallettebeitia txapelketa honetako sorpresa ere aintzat hartzeko dela uste dut.

Nori jarri nahi diozu txapela?

Aurten beste txapeldun bat egokitzea gustatuko litzaidake: Arkaitzek badauzka bi txapel, eta ilusioa egingo lidake Iratxeri, Frediri edo Etxahuni jantzteak, esaterako. Denei jantziko nieke gustura, baina onenari jantziko diot seguruen!

Zelan ibili dira Durangaldeko bertsolariak txapelketan?

Eskualdeko bertsolarien txapelketako jarduna errebasatu du Mardarasek

Txapelketan parte hartu duen Durangaldeko bertsolaririk ez da egongo bihar Bilbon jokatu-ko duten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean. Arkaitz Estiballes (Galdakao, 1977), Etxahun Lekue (Larrabetzu, 1979), Fredi Paia (Algorta, 1981), Iratxe Ibarra (Markina-Xemein, 1974), Jone Uribe (Algorta, 1990), Oihana Bartra (Bilbo, 1984), Onintza Enbeita (Muxika, 1979) eta Xabat Gallettebeitia (Lekeitio, 1986) bertsolariak iritsi dira bihar, 17:30ean, Bilbon jokatu-ko den finalera.

Txapelketan parte hartu duten Durangaldeko bertsolariek, aldiz, ez dute finalerako

sailkatzeko behar beste puntu bildu. Durangaldeko bertsolariek txapelketa honetan izandako jardunaren analisia egin du biharko irabazleari txapela jantziko dion Kristina Mardaras iurretarrak.

Miren Amuriza ez du beste urte batzuetako mailan ikusi: “Zalantza ikusi dut Miren, bertsoa hasteko denbora gehi- gi ematen. Eta horrek puntuazioan zigorra dakar. Ez dut disfrutatzen ikusi, eta pena hartu dut”. Mardarasek ustez, eman duena baino askoz bertsolari hobea da Amuriza. Beñat Ugartetxea eta Gorka Lazkano ere ez dituzte on-

nean ikusi. Baina Ugartetxea, eta Eneko Abasolo *Abarkas* finalaren atean geratu dira, eta “hurrengo batean beste eskaileratxo bat igotzeko prest” ikusten ditu Mardarasek.

Bertsogintzaren arloan Durangaldeko potentzial handia daukala azpimarratu du Kristina Mardarasek. “Hizkuntzak erabilera guztiak sortu behar ditu, erabilera ez dator zerutik... Eta bertsolaritzak badauka potentziala erabilera guztiak sortzeko”. Durangaldeko hainbat herritan martxan dauden bertso eskolena oso erreferentzia positiboa dela azpimarratu du.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Duela hamaika urte utzi zuten Artobixarra taldea Iñigo Larrian, Peio Salaberria, Iñaki Urresti eta Koldo Zubi elorriarrek. Bihar, baina, berriro ariko dira elkarrekin zuzenean, Elorrioko gaztetxean.

Taldekideen berbetan, aspaldi sorturiko ideia da kontzertuarena. Zubia taldekideak azaldu duenez, Txomin Lesende laguna preso izan duten artean, hamahiru urtean, espetxera egindako bisitetan sarritan komentatu izan dute kartzelatik ateratzen zenean kontzertu bat eskainiko ziotela. Izan ere, Lesendek ez zituen ez taldearen azken agurra, ez orain zazpi urte eskanitako Atxondoko eta Elorrioko kontzertuak ikusi.

Artobixarra laukotea 1998. urtean sortu zuten hiru lagunek, Elorrion, eta 2003. urtera arte iraun zuen

Biharko emanaldian, 2001. urtean lagunekin grabatu zuten taldearen disko bakarreko kantak eta bertsioren bat joko dutela aurreratu dute.

Hainbeste urteren ondoren, berriro elkarrekin aritzea zai-

Bihar gaztetxean jotzeko, berriro elkartu dira Artobixarra taldekoak

Hamarkada bat igaro du kontzerturik eman barik Elorrioko musika taldeak



Elorrioko musika taldearen artxiboko argazki bat.

la izan ote den galdetuta, ezetz erantzun du Zubia baxu-jotzailak: "Nahiz eta hamaika urte igaro diren taldea utzi genuetik, taldekideok beste proiektu batzuetan gabiltza, eta esan daiteke musikan aktibo gaudela. Horrek laguntzen du abestiak gogoratzeko orduan".

Artobixarra taldea 1998. eta 2003. urteen artean aritu zen.

2001. urtean grabatu zuten disko bakarreko hainbat kanta eta gustuko bertsioren bat joko dituzte

Ikastolako lagunak ziren Salaberria, Urresti eta Zubia hasi ziren gaztetxeko entsugu lokalatan jotzen, eta urtebetera Larrian batu zitzaizen mikroan.

Biharkoa hitzordu berezia izango da taldekideentzat, baina, taldekideek azpimarratu dutenez, aurrera begira ez daukate taldearen jarduna berrartzeko inolako asmorik.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Lan eskaintza: Jostunak behar dira

Kakorratza eskuetan hartu, artilea aukeratu, eta, korapiloz korapilo, ehuna josi. Ez naiz ni sastre lanetan esperimentatzen hasi den bakarra.

"Jostorrazak dantzan" jarri zizuten pasa den asteburuan emakume abertzaleen topaketa feministetan. EH Bildu *Lortzen hari garena* herriz herriko dinamika lantzen dabil "puntuz puntu" datozen udal eta foru hauteskundera begira. Gure Esku Dagokoak erabakia ehuntzeko erronkari ekin diote asteon aurkeztu berri duten *Jostunak: herritarren borondateak jositako istorio bat* dokumentala tarteko. Bihar, berriz, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan lau gizon eta lau emakume lehia-tuko dira, buruz buru, *Josi* mezua daraman txapela eskuratzeko. Sarek ere, urte berrirako zita jarria du: NOW! Euskal Herrira!; "sare indartsu bat osatu" nahi dute sakabanaketarekin bukatzeko. Eta gehiago ere badira, denak sareak sortzen, denak ehuntzen, denak jostun.

Beti hala ez badirudi ere, herri honek garai berria bizi du. Gudu zelaian eraikitako lubakiak desegin, sabaia eta zoruak irabiatu, eta iragana etorkizunarekin josi. Herri (berri) bat eraikitzeko gutxieneko batzuen bueltan hurbildu, batu, adostasunak bilatu.

Metaforak balio dezake hasterko, ez jarraitzeko. Jostorraztekin punta zorrotzegia dutelako jantzen baititugu titareak. Hortaz, erantzi beharko ditugu kateak. Zurezko galtzorrazak hartu, eta egin, desegin, berregin ekuazioan trebatu. Oihala hobe da beti asko eta luze moztea; haria nolako, harila halako.

Gabonetako bazkaloste edota afalondorako puntua: Ze herri klase nahi den/k biharko egunean? (Doinua eta neurria: Libre).

Santos Okina durangarrak 'Paisaiak' du erakusgai

Urtarrilaren 4ra arte ikusi ahalko da erakusketa

> PINTURA I.E.

Urtarrilaren 4ra bitartean ikusi ahalko da Durangoko Arte eta Historia Museoa Santos Okinaren *Paisaiak* margo erakusketa. Olio pinturagaz landutako 32 lanek osatzen dute bilduma. "Erakusketa honetan, batez ere, Durango eta Durangaldeko gaiak lantzen ahalegindu naiz", adierazi du egileak. Hala ere, Bizkaiko kostaldeko, Arabako eta Burgos iparraldeko paisaiak ere agertzen dira margolaria- ren erakusketako lanetan.

Ezkurdi aretoan eta Villarcayon (Burgos, Espainia) ere erakutsi izan du Okinak bere lana. Beste artista batzuekin batera, Durangoko eta Bergarako artisten elkartearen erakusketa kolektiboetan parte hartu izan du.

Olio pinturagaz landutako 32 margolanek osatzen dute Santos Okinaren 'Paisaiak' bilduma

92 urtegaz hil da Jose Alberdi 'Txo' bertsolaria

Bizkaiko lehenengo txapelketan parte hartu zuen

> BERTSOLARITZA A. Ugalde

Abenduaren 15ean hil zen Jose Alberdi *Txo* bertsolari iurretarra. Aita San Migel elizan egin zuten, eguaztenean, bere aldeko hileta elizkizuna. Bere belau-naldiko beste bertsolari batzuekin batera -Baldendin Enbeita, Basilio Pujana eta Juan Ormaetxea, esaterako- gerra ostean Bizkaiko bertsolaritzari eutsi zion Jose Alberdik. Euskaltzaindiak 1958an antolatu zuen Bizkaiko lehen bertsolari txapelketan parte hartu zuen.

Bizkaiko hainbat txapelketan abestu zuen, eta 1959an jokatu zen Durangaldeko Txapelketa berak irabazi zuen. Bertsolaria izateaz gainera, Kuru-tziaga ikastolako zaintzaile ere izan zen Jose Alberdi.



JOSE ALBERDI 'Txo'

San Agustín, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

XVII. Gabon Kanta Emanaldia
Centro Palentino Castellano leonés
Abenduaren 20an - 19:00etan

On egin Borobil Teatroa
Abenduaren 21ean - 18:00etan

San Agustín KULTUR GUINEA
DURANGOKO UDA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

ABENDUAK 19 23:00etan DOAN FRIENDS eta musika elektronikoa ELEKTRONIKA	ABENDUAK 20 23:00etan 15€/20€ NDIAYE ET LA GUÉWEL MUSIKA KONTZERTUA	ABENDUAK 26 23:00etan DOAN SOUND SYSTEM JAIA JAIALDIA
--	---	---

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300



-ZORIONAK-

eta

urte
• berri on •

Gabonak

• 2014 •

anboto



Askatasun etorbidea, 25 DURANGO · Tel.: 946 218 186

URTAINA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Gabonak 2014

ABADIÑO

ABENDUAK 19

20:00 ANTZERKIA
'La extraña pareja', Txintxaun kolektiboa.
Sarrera: 3 euro. Errota kultur etxean.

ABENDUAK 21

18:00 GABONETAKO KONTZERTUA
De Norte a Sur taldea.
Errota Kultur Etxean.
Gonbita beharko da sartzeko, eta gonbitak abenduaren 15etik aurrera egongo dira eskura, Errota kultur etxean (sarrera bi pertsonako, goitik jota).

ABENDUAK 22

19:00 GABONETAKO POSTAL LEHIAKETAREN SARI BANAKETA. Errota kultur etxean.

ABENDUAK 23

18:00 IPUIN KONTALARIA
Pello Añorga, 5-8 urtekoentzat. Udal Mediatekan.

ABENDUAK 24

OLENTZEROREN KALEJIRA
16:30 Traña plazan.
19:00 Txanporta plazan.
Ibilbidea: Traña plazan hasi, eta Txanporta plazan amaitu.

ABENDUAK 27

18:00 UMEENTZAKO ANTZERKIA
'Munduari itzulia', Gorakada.
Sarrera: euro 1. Errota kultur etxean.

19:30 GABONETAKO KONTZERTUA
Santiago Banda (organoa) eta Enrique Abello (tronpeta).
San Trokaz elizan.

ABENDUAK 30

18:00 IPUIN KONTALARIA
Saraa Bikandi. 5-8 urte artekoentzat.
Udal Mediatekan.

ABENDUAK 31

17:00 UMEENTZAKO ZINEMA
Muntsarazko lokaletan.

19:00 URTE AMAIERAKO DESPEDIDA
Muntsarazko lokaletan.

URTARRILAK 1

MENDI IRTEERA
Urkiola-Urkiolamendi-Larrano-Urkiola
09:00 Irteera, Traña-Matienako eliza aurretik.
11:15 Hamaiketakoa, Urkiolako aterpean.
12:30 Berrito Traña-Matienara.

URTARRILAK 2, 3, 4

UMEEN GABONETAKO HAUR PARKEA
11:30-13:30 / 16:00-20:00
Txu-txu trenak eroango zaitu Traña-Matienatik Zelaietara eta alderantziz. Probalekuan.

URTARRILAK 5

18:00-20:00 ERREGE MAGOEN DESFILEA
Herri osoan: Muntsarazen hasi eta Traña-Matienan amaitu.

ERROTA KULTUR ETXEA
Abenduaren 22tik urtarrilaren 9ra bitartean, Gabonetako postal txapelketara aurkeztutako lanen erakusketa.

ATXONDO

ABENDUAK 23

17:30 Olentzeroren etorrera Apatako plazara.
Ondoren, herriko kaleetan zehar gabon-kanten kantaldia.
Amaitzeko, txokolatea banatuko da.

ABENDUAK 30

17:00 Apatako ludotekan artile tailerra: bufanda, txanoak...
Oharra: Bakoitzak bere artilea ekarri beharko du.

(Eguna oraindik jarri gabe dago)

11:00 Axpeko soziedadean, turroia egiten ikasteko sukaldaritza tailerra.
Oharra: Aldez aurretik eman behar da izena.
Harremanetarako: 670 685 734 / 630 470 640.

BERRIZ

ABENDUAK 24

09:30 Olakuetako plazan, auzoetara joateko.

17:30 OLENTZERO ETA MARI DOMINGI
Ibilbidea: udaletxetik probalekura.
Animatu, eta baserriar jantzita etorri.

URTARRILAK 2

GABONETAKO HAUR PARKEA
12:00-13:30 eta **16:00-20:00**.
Berrizburu kiroldegian.

URTARRILAK 5

17:30 ERREGE MAGOEN DESFILEA
Komentutik Olakuetako plazara joango da.
Ondoren, txokolatea hartzeko aukera egongo da.

DURANGO

ABENDUAREN 13tik URTARRILAREN 6ra

JESUSEN JAIOTZAREN ERAKUSKETA
18:00-20:00 Elementu mugikorak eta diaporama. Egilea: Luis Ibáñez.
San Frantzisko kalea, 13 behea.

ABENDUAK 19

19:00 GABONETAKO KONTZERTUAK
Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ikasleak.
San Agustin kulturgunean.

19:30 HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA
'De cómo me convertí en un narrador folk y otras historias', Roberto Mezquita (gaztelaniaz).
Udal Liburutegian.

20:00 ORGANO KONTZERTUA
François Espinasse. Arandoño elkarteak.
Andra Maria basilikan.

ABENDUAK 20

GABON JAIA
Inurri eskaut taldea
12:00 Helduak
17:00 Haurrak
19:00 Ospakizuna
Andra Mariko elizpean eta basilikan bertan.

18:00 XVII. GABON KANTEN JAIALDIA
Palentziako, eta Gaztela eta Leongo egoitza.
San Agustin kulturgunean.

ABENDUAK 21

11:30 XLVII. GABON KANTEN, ETA HAUR ETA GAZTEEN JAIALDIA
Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeak.
Landako Gunean.

12:00-14:00 GABONETAKO KALEJIRA
Durangoko Orfeoia

18:00 HAURRENTZAKO ANTZERKIA
'On egin', Borobil Teatroa.
4 euro. Bazkideek 3 euro.
San Agustin kulturgunean.

ABENDUAK 22, 23

19:00 DANTZA.
'Cascanueces', L'Atelier dantza eskola.
Sarrera: 8 euro.
San Agustin kulturgunean.

ABENDUAK 23

17:30 eta **18:15** HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA (ingelesez)
'Santa's Elves', Kids&Us.
3-8 urte bitartekoentzat.
Udal Liburutegian.

ABENDUAK 24

19:00 OLENTZERO ETA MARI DOMINGI
Kalejira eta harrera institututik.
Institutua, Frai Juan Zumarraga, Ermodo, Zumalakarregi eta Andra Mariko elizpea.

ABENDUAK 26

16:00 eta **18:30** PIRRITX, PORROTX
ETA MARI MOTOTS, Txo, Mikmak txikia'
Sarrerak Pinondo Etxean salduko dira edukiera bete arte: abenduaren 16tik 19ra (gehienez ere hamar sarrera pertsonako). 3 euro.
Landako Gunean.

ABENDUAREN 26tik URTARRILAREN 6ra (biak barne)

IZOTZ PISTA. Landako Gunean.

ABENDUAK 27

20:00 KONTZERTUA
Tabira Musika Banda eta Durangoko Orfeoia.
San Agustin kulturgunean.

12:00 HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA
'Aurorita beti polita', Lur Korta.
4 urtetik gorakoentzat.
Udal Liburutegian.

ABENDUAK 28

13:30 GABONETAKO KONTZERTUA
Txistua, biolin baskotea, metal laukotea eta abeslariak. Jaizale Durangaldeko txistulariak.
Santa Ana elizan.

18:30-20:30 URTE AMAIERAKO DANTZALDIA
Adinekoentzat. Marfil orkestra.
Landako kiroldegian.

19:00 KONTZERTUA
Doinuzahar kamara abesbatza
Andra Maria basilikan.

ABENDUAK 28, 29, 30, 31

11:00-14:00/16:00-20:00 (hilaren 31n, **11:00-14:00**)
GABONETAKO HAUR PARKEA
Umeek doan. Helduek euro 1.
Landako Gunean.

ABENDUAK 29, 30

11:30-13:30/16:00-20:00 TXU-TXU TRENA
Dendak Bai. Geltokia: Madalena.
Sarrera: Dendak Bai erosketa tiketa.

URTARRILAK 3

20:00 HERRI MAITE AKORDEOI TALDEA
Santa Ana elizan.

URTARRILAK 3, 4

16:00-20:00 GABONETAKO HAUR PARKEA
Umeek doan. Helduek euro 1.
Landako Gunean.

URTARRILAK 5

ERREGE MAGOEN DESFILEA
Marianak kongregazioak.
18:30 Frai Juan Zumarraga.
19:00 Ezkurdi.
19:30 Udaletxe aurreko plaza.
20:00 Andra Mariko elizpea.

URTARRILAK 6

18:30 JAEDeko ONGINTZAZKO ZOZKETA
Andra Mariko elizpean.

ELORRIO

ABENDUAK 19

SAN TOMAS EGUNA
12:00 Auzoko jaiak, Mendrakan.

12:00 Eskoletako azoka txikiak, plazan.

19:00 Orfeoia kalerik kale.

ABENDUAK 21

Goiz osoan herri merkatua: saldu, erosi, oparitu, trukatu.
17:00 'Boli, Bili, Boli', haurrentzako antzerkia.
Arriola Antzokian.

ABENDUAK 24

17:00 BADATOR OLENTZERO! Plazan.

18:00 DANTZA. Besaide dantza taldea. Plazan.

ABENDUAK 25

12:00 Parrokiako korua, basilikan, mezatan.
Jaunaren Gabonak.

ABENDUAK 26

12:00 SAN ESTEBAN OSPAKIZUNAK
Berrion. Besaideko dantzariekin.

ABENDUAK 28

11:00 Santxibiri herri lasterketa (umetxoak).

12:00 Santxibiri herri lasterketa (helduak).

17:00 eta **18:00** 'Ate debekatua'-ren ostean.
Arrapaladan taldea. Haurrentzako antzerkia.
Arriolan.

ABENDUAK 29, 30, 31

UMEEN PARKEA
11:30-14:00 / 16:30-20:00
Dantza ikuskizuna, pantailak, ludoteka, txirrista erraldoia, gaztelu puzgarriak eta zezen mekanikoa.
Hilario Azkarate pilotalekuan.

ABENDUAK 31

09:00 Erdellakoekin mendira,
Kongetara eta Atxaurrutxaganera.

00:30 DJa. Ateneoan.

URTARRILAK 1

URTEBERRI EGUNA
09:00 Guztioak Erdellara!

URTARRILAK 2, 3, 4

UMEEN PARKEA
11:30-14:00/16:30-20:00
Pafinatzeko pista, haurtxoentzako ludoteka, ohe elastikoak eta txirrista erraldoia.
Hilario Azkarate pilotalekuan.

URTARRILAK 5

17:00 Errege magoen gaua.

GARAI

ABENDUAK 24

GABON-EGUNA
10:00 Udaletxe aurrean irteera, etxerik etxe abesten joateko.

BAZKARIA
Eguerdian bazkaria, Otea Loran elkartean parte hartu dabon guztientzat. Ondoren, hirigunean jarraituko dute abesten.

IURRETA

ABENDUAK 19

OLENTZERORI GUTUNAK
Eskoletako umeek beraien gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe kultur etxera.

ESKOLEKIN HITZARTUTAKO ANTZERKI SAIOA
Txikientzako: 'Andrina Basandrina'.
1. mailatik 4. mailara: 'Olentzero eta zaku magikoa', Kalikako Teatroa.
Ibarretxe kultur etxean.

20:00 NAGUSIENTZAKO IPUIN KONTALARIA
Virginia Imaz, 'Cuando el fin sea el principio'.
Ibarretxe kultur etxean.

ABENDUAK 22

20:00 ABENDUKO KOPLEN ENTSEGUA
Gaiuria kulturgunean.

12:00 GABONETAKO KONTZERTUA
Bartolome Ertzilla Gazte Orkestra.
Ibarretxe kultur etxean.

ABENDUAK 22-23

10:00-12:30 GABONETAKO TAILERRAK
4 URTETIK GORAKO UMEENTZAT
Izena emateko epea:
abenduaren 1etik 15era bitartean
Ibarretxe kultur etxean.

ABENDUAK 23

10:00 KOPLAK ABESTUKO DIRA ETXEZ ETXE
San Migel plazan.

ABENDUAK 24

OLENTZERORI HARRERA
11:30 Kalejira trikitilariekin Amilburu plazatik pilotalekuraino, baserriar jantzita elortzera animatzen zaituztegu.
12:00 Umeek Olentzerogaz egoteko aukera izango dute. Olaburu pilotalekuan.

ABENDUAK 26, 27, 29, 30

11:30-13:30 / 16:30 -19:30
GABONETAKO UMEEN PARKEA
Zapatuan: **11:30-13:30**
Ume eta gazteentzako parkea (0-14 urte).
Txikientzako ludoteka, gaztelu puzgarriak, umeentzako jokoak eta tailerrak.
Egun bakoitzean tailer berezi batzuk antolatuko ditugu: globoflexia, pastelak, panpinak, txapak...
Iurrelako Olaburu pilotalekuan.

ABENDUAK 29, 30

TXU-TXU TRENA IURRETAN
ETA DURANGON ZEHAR
Ordua: **11:30-13:30 / 16:00-20:00**.
Trena Iurreta Kopisteria aurrean hartuko da.

ABENDUAK 30

12:00 UMEENTZAKO IPUIN KONTALARIA
KURKULUXETAN (3 urtetik gorakoentzat)
'Amonaren sutondoko ipuinak'.
Amaitzerakoan, gutun-postalen eta erakusleihoen lehiaketetako sariak banatuko dira. Olaburu pilotalekuan.

19:00 Musika saioa eta txokolatada.
Jubilatuen etxean.

11:30 UMEEN IKUSKIZUNA
Pantxika eta Txinparta ederra zalaparta.
Ibarretxe Kultur Etxean.

URTARRILAK 5

Iluntzean Errege magoen desfilea herrian zehar; ondoren, txokolatea banatuko da.
Askondo kalean.

MALLABIA

ABENDUAK 20

11:00 ARETO FUTBOL TXAPELKETA
(benjaminaurrekoak) Atxondo, Matiena, IMD
Ermua eta Mallabia. Eskolan.

18:00 MAGOA
Bete eskutitza eta eman Olentzerori.
Herriko pilotalekuan.

ABENDUAK 24

19:00 OLENTZERO MALLABIRA DATOR! Plazan.

ABENDUAK 26

11:30-13:30 / 16:30-19:30 HAUR PARKEA
Herriko pilotalekuan.

ABENDUAK 27

Mendibil eta Jasokunde abesbatzak baserri gabon-kantak abesten, goiz eta arratsalde.

23:00 KONTZERTUA. Izaro eta Dani.
Herriko Tabernan.

ABENDUAK 28

11:00-14:30 BIGARREN ESKUKOEN AZOKA
Herriko pilotalekuan.

ABENDUAK 30

19:00 DOKUMENTALA 'Zohardia', Josu Muguruzari buruzko dokumentala. Kultur Etxean.

ABENDUAK 31

Arratsaldean herri poteoa

URTARRILAK 2

9:00 FRONTENIS MARATOIA (bikoteka) Herriko pilotalekuan.

URTARRILAK 3

11:00 GINKANA BIZIKLETAGAZ. Eskolan.

18:00 IPUIN KONTALARIA. Herriko Tabernan.

MAÑARIA

ABENDUAK 19

17:30 IPUIN KONTALARIA
Antton Iruña ipuin kontalaria udal liburutegian. Oharra: Udala ez da ikuskizunera hurbiltzen diren umeen zaintza arduratuko, beraz, 8 urtetik beherako umeek nagusi batek lagundurik etorri beharko dute.

19:30 KANTU POTEOA
Herriko plazan. Animatu eta etorri!

ABENDUAK 22, 23, 24

GABONETAKO TXOKOA
09:30etik 12:30era.
Mañariko liburutegian. 3 urtetik aurrerako umeentzat. Ekintzak: eskulanak, jolasak, sukaldaritza, antzerkia... Izen-ematea: liburutegian edo udaletxean, abenduaren 12a baino lehen. 10 euro.

ABENDUAK 24

18:00 OLENTZERO
Olentzero Mañariko kaleetatik igaroko da haurren gutunak jasotzeko. Andra Mari elkarte.

ABENDUAK 28

12:00 ABESBATZEN KONTZERTUA
Kirikiño abesbatza (Mañaria).
Zozoak abesbatza (Getxo).
Mañariko Andra Mari elizan.

URTARRILAK 5

ERREGE MAGOAK
Abenduaren 5ean, arratsaldeko 18:30ean, Errege magoak plazara helduko dira. Nahi izanez gero, opariak eskura emango dituzte.

OTXANDIO

ABENDUAK 20

19:00 Gabon kantaldia Otxandioko elizan: Otxandio, Oleta, Legutio eta Ubideko kantak, Soinubilek antolatuta.

ABENDUAK 21

08:00 MENDI IRTEERA
Mirugainek antolatuta: Iluntzar.

ABENDUAK 23

18:30 Argitxo eta Anbrosi umeen eskutitzak batzera kontzejupean. Ondoren, txokolatada. Gurasoen elkarteak antolatuta.

ABENDUAK 24

18:30 KALEJIRA. Udal Musika Banda.

19:00 Olentzero eta beragaz herriko txistulari eta Oihandi abesbatzak herriko kaleetan zehar gabon-kantak abesten, kontzejupean amaitzeko.

21:30 Gabonetako errifaren zozketa, Vulkano kirol elkarte.

ABENDUAK 25

12:00 TXISTULARIEN KALEJIRA.

ABENDUAK 26

19:30 ANTZEZLANA
'Potologuak'. Gimnasioan.

ABENDUAK 27, 31

ERAKUSKETA
Santi Kapanagaren bildumako argazkiak. Bolaleku aretoan.

ABENDUAK 28

19:00 Euskal selekzioa Catalunyakoaren aurka ikustera joateko autobusa jarriko da. Sarreraren erreserba egiteko jo ezazue udaletxera. Epea: abenduak 26ra arte.

ABENDUAK 31

09:30 URTEKO AZKEN MENDI IRTEERA
Arangio mendi (1.102 m). Mirugainek antolatuta.

11:00 GABONETAKO HAUR PARKEA. Gimnasioan.

18:00 HERRI KROSA

19:00 TXISTULARIEN KALEJIRA.

20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko elkarrekaratzea plazan. Giza eskubideen udal batzordeak deituta.

ZALDIBAR

ABENDUAK 24

16:30 OLENTZERO
Ibilbidea: udaletxea, Autonomia, Bolatoki, Psikiatrikoa, Euskal Herria, Olea, Munibe, Bilbo Etorbidea, San Andres etorbidea, Zaldua plaza.
Koral elkarteak trikitilariak izango dira giroa alaitzen. Zaldua plazan jaiotza jarriko da. Oharra: irteeran ume guztiei txarteltxo bana emango zaie, eta kalejira amaitutakoan opariak zozkatuko dira Zaldua plazan. Ahal dela, baserritar jantzita etorri.

ABENDUAK 26

SAN EZTEBE EGUNA
18:30 Eskolako pilotalekuan: taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.
Koral elkarteak trikitilariak izango dira jaiak alaitzen. Umeentzako ekintzak Txintxaur aisialdi taldeak antolatuta.

ABENDUAK 27, 28

11:00-13:00 / 16:00-19:00
UMEEN GABONETAKO PARKEA

URTARRILAK 1

10:30 SANTAMARINAZARRERA
Taldearen argazki ofiziala.
Gora datozen guztientzako hamarretakoa.

URTARRILAK 5

18:30 ERREGE MAGOEN DESFILEA
Errege magoak helduko dira Olazar pilotaleku ingurura.
Ibilbidea: Olazar, Euskal Herria, Psikiatrikoa, Olea, Arantzamendi, Euskal Herria eta udaletxeko plaza.
Koraleko trikitilariak izango dira giroa alaitzen.

ZORNOTZA

ABENDUAK 19

21:00 GABONETAKO KONTZERTUA
Zubiaur Musika Eskola. Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 20

'Nun ikusiot nik zure aurpegixe? Ill.', Gauero programaren gala berezia, Ametx Gazteriako langileek abeslari famatuaren kantak eskainiko dituzte...

ABENDUAK 21

GABON-KANTAK
Herriko koralek eta txistulariak.
12:30 Herrian zehar.
13:45 Kalbario plazan.

ABENDUAK 22-URTARRILAK 9

ERAKUSKETA
Pintzelak elkarte. Zelaieta zentroan.

ABENDUAK 24

Belatxikietara Igoera. Goizean.

18:00 OLENTZERO. Kalbario plazan hasita.

ABENDUAK 26-30

GABONETAN JAI
0-12 urte artekoentzat. Pilotalekuan.
Ordutegia: **11:00-13:30** eta **16:00-20:00**.
Puzgarriak, jolasak, ohe elastikoak, irratia, eskulanak, musika... Txikitxoaren gune berezia (gurasoekin).

18:30-20:30 DJ ANIMAZIOA
Eguneko sarrera: 2 euro.
5 eguneko bonua: 8 euro.
GAUERO GABONETAN (+10 urte)
Kontzertu gelan.
Ordutegia: **17:00-22:00**
Mahai jokoak, bideo jokoak, ping-ponga, futbolina, tailerrak... DOAN

ABENDUAK 28

EKITALDI SOLIDARIOA. Auto klasikoak.

ABENDUAK 30

17:00 eta **19:00** 'Hiru txerritxoak'
GLU GLU Produktzioak. 2 saio. Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 31

San Silvestre eguneko lasterketa, arratsaldean.

00:15-03:15 Gabon zahar gaueko
GAUERODISKO. Zelaietan.

URTARRILAK 5

ERREGE MAGOEN DESFILEA



Aurrezte zoriontsua!



Entzungo dizugu 902 540 340
Informazio gehiago: www.eroski.es



EDERRA
Errioxa JDK
erreserbako ardo
beltza, 75cl.
Unitatea 7,30€
7,30€/l



PSP 2. unitatea
2,19€

2 unitate: 6,33€/l



SAN MIGUEL
Garagardoa,
12x33 cl
pila
Unitatea 5,60€
1,41€/l



PSP 2. unitatea
1,68€

2 unitate: 0,92€/l



EL LOBO
Turroi gogorra
edo biguna,
300 g
Unitatea 4,45€
14,83€/kg



PSP 2. unitatea
1,33€

2 unitate: 9,63€/kg




JUVER
Anana
xerratan
3x140 g pila
Unitatea 2,79€
6,64€/kg



PSP 2. unitatea
0,84€

2 unitate: 4,31€/kg



Indarrean dagoen legeria betetzearen, adingabekoei ez diegu edari alkoholdunik saltzen.

Gabonak 2014 erosketak herrian

DURANGALDEKO DENDETAN OPARI ESKAINITZA ZABALA

Gabon sasoia gertukoei opariak egiteko momentua izaten da. Baina zer opari aukeratu? Galdera horri erantzun guran arituko da bat baino gehiago egunotan. Arropak, oinetakoak, osagarriak, jostailuak, liburuak, CDak, kirola egiteko materiala... denetarik aurkitu daiteke Durangaldeko dendetan.



**UNDARRI
BIKE**

Bidebarrieta, 5 behea
IURRETA
Tel.: 946 817 808



Elur-oholak eta eskiak **ESKUZ**
konpontzen ditugu eta beraien
mantenimentua eramaten dugu



gau-tu

Olleria, 3
DURANGO
Tel.: 946 550 700





Maite
Lurriudegia eta Bitrikeridenda

Barrenkalea, 22
DURANGO
Tel.: 946 570 917



edertasun
produktuez
osatutako
sortak

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak
eta aholkularitza

Goienkalea, 16-1. esk
DURANGO
Tel.: 946 817 380



opari
txartelak



hitz
liburudenda

Artekalea, 14
DURANGO
Tel.: 946 810 776
hitz@hitzliburudenda.com



**IAZKO
HEZURRAK**
Unai Elorriaga
2014
23,00€

**TUNELAK,
IZARAK,
MOZORROAK
ETA BAFLEAK**
Josu Martínez
2014
15,50€



**HAUR
BESOETAKOA**
Unai Iturriaga
eta Alex Sanvi
2014
13,00€

**GIZA
GORPUTZA**
Pascale Hédelin
eta Robert
Barborini
2013
20,50€



**DENBORA DA
POLIGRAFO
BAKARRA**
Berri Txarrak
2014
18,00 €

**TRIKITIXAREN
HISTORIA
TXIKI BAT**
Kepa Junkera
eta Sorginak
2014
25,00 €



etxedreams
COLCHONERIAS

Mikeldi, 4
DURANGO
Tel.: 946 202 138

OUTLET
%50eko
beherapena



San Eztebe eguneko jaia berreskuratzen dihardu guraso elkarteak Zaldibarren

Abenduaren 26an eskolako pilotalekuan taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak banatuko dituzte



Aurreko urteetako San Eztebe eguneko argazki bat.

> JAIA Jone Guenetxea

San Eztebe egunez jai garrantzitsua egiten zen Zaldibarren. Egun horretan baserrietako maizterrak urteko ordainketa egitera jaisten ziren herrigunera. Ugazabei ordainketa egiteko eguna jai handia izaten zen. Entzute handiko erromeriagaz eta idi probekin ospatzen zuten eguna. Baina sasoiak aldatu egiten dira. Maizterren eta ugazaben arteko hartu-emanen aldaketak gertatu ziren. Industrializazio sasoiak heldu zenean, ohitura hori galtzen hasi zen.

1985. urtean, Jose Mari Amezua Kultur zinegotziari ohitura hau berreskuratzea bururatu zitzaion. Horrela, eskolako guraso elkarteari proposamena luzatzea erabaki zuen. Errentak ordaintzeko beharrian barik, jai giroan planteatu zuten San Eztebe eguneko ospakizuna Zaldibarren. Urteen joan-etorriagaz, guraso elkartearen ekimena errotzen joan da herrian, Gabonetan antolatzen den egi-

tarauaren barruan, eta harrera ezin hobe izaten du

Aurten ere, guraso elkarteak prest du San Eztebe eguneko egitaraua. 18:30ean ekingo diote jaiari. Eskolako pilotalekuan taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak banatuko dituzte. Ordu eta erdian 600-700 mokadu banatzen dituztela aurreratu dute antolatzaileek. Denbora gutxian lan handia izaten dute, beraz. Era berean, Koral elkarteak tri-

**Baserrietako
maizterrak urteko
ordainketa egitera
jaisten ziren
herrigunera**

**1985. urtean
Zaldibarko eskolako
guraso elkarteak
San Eztebe eguna
berreskuratu zuen**

kitilariak giroa alaituko dute. Umeei zuzendutako ekintzak ere prestatu dituzte Txintxaur aisialdi taldeko kideek.

ZALDIBAR Gabonetako jaiak 2014-15

· Abenduak 24 OLENTZERO ·

Irteera: 16:30ean.

IBILBIDEA: Udaletxea, Autonomia, Bolatoki, Psikiatrikoa, Euskal Herria, Olea, Munibe, Bilbo Etorbidea, San Andres etorbidea, Zaldia plaza. Koral elkarteak trikitilariak izango ditugu giroa alaitzen. Zaldia plazan jaiotza jarriko da. Oharra: Irteeran ume guztiei txarteltxo bana emango zaie, eta, kalejira amaitutakoan, opariak zozkatuko dira Zaldia plazan. Ahal dela, baserritar jantzita etorri.

· Abenduak 26 SAN EZTEBE EGUNA ·

18:30etik aurrera

Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

Eskolako pilotalekuan.

Koral elkarteak trikitilariak izango ditugu jai alaitzen.

Umeentzako ekintzak Txintxaur aisialdi taldeak antolatuta.

· Abenduak 27 eta 28 Umeen Gabonetako parkea ·

11:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00

· Urtarrilak 1 SANTAMARINAZARRERA ·

10:30ean, talde argazki ofiziala.

Gora datozen guztientzako hamarretakoa.

· Urtarrilak 5 Errege magoen desfilea ·

18:30ean: Errege magoak helduko dira Olazar pilotaleku ingurura.

Ibilbidea: Olazar, Euskal Herria, Psikiatrikoa, Olea, Arantzamendi, Euskal Herria eta Udaletxeko plaza.

Koraleko trikitilariak izango dira giroa alaitzen.



Montevideo etorbidea, 3
DURANGO
Tel.: 946 056 295

www.hamptonosagarriak.com

 [hamptonosagarriak](https://www.facebook.com/hamptonosagarriak)

gabon zoriontsuak izan!






afede

2014ko
eguberrietarako
produktuak

EUSKARAZ DIREN JOSTAILUEI DAGOKIENEZ AUKERA HANDIA
Afeden soilik salgai

39,95€
TABLETA ADITUA

4-7 urte bitarteko haurrentzako
80 jarduera baino gehiago.



Donostiako
Eureka Zientzia
Museorako
sarrera bat opari

Donostiako
Eureka Zientzia
Museorako
sarrera bat opari



Euskarazko
bertsioa
dauka



8,95€
BAZEN BEHIN...

4 irudi-dadoak bota liburu honetako
agertokiaren gainean, eta zure istorio
propioak kontatu. Jar ezazu proban
zure irudimena, eta estimatu zure
sormena.

8,95€
GIZA GORPUTZA

Gizakiaren gorputzari buruz
ezagutu beharreko guztia ezagutu
ezazu modu dibertigarri batean!
Gainera, kontzentrazioa, sormena,
ikaskuntza eta arrazoiketa garatzen
laguntzen du.

11,99€
LA ABEJA MAYA
filma

PARTE HARTU, ETA JOLAS BAT IRABAZI

Nork zuzendu du Otxandioko plazaren azterketa arkeologikoa?

Bidali erantzuna eta zure datuak: zozketa@anboto.org helbide elektronikora.

Asteburuan jasotako erantzunekin astelehenean zozketa egingo dugu.

Frai Juan Zumarraga, 15
DURANGO

SIMPLY supermerkatua
DURANGO

Gudari kalea, 49
ZORNOTZA

San Juan kalea, 13
EIBAR



Hiru saridunak lehenengo lerroan, eta epaimahaikideak bigarreanean.

Ipuin laburren 365 lehiaketaren sari banaketa, sorkuntzaz betea

Durangoko Plateruenak hartu zuen, eguaztenean, lehiaketaren sari banaketa

> LEHIAKETA Itsaso Esteban Sorkuntzak hartu zuen protagonismo nagusia, euskarazko sorkuntza bultzatzeko, Berbaro taldeak abiatutako ipuin laburren 365 lehiaketaren eguaztenean Platerueneko sari banaketa ekitaldian ere. Ekitaldira bertaraturiko publikoak Twitter

zein posta elektronikoz jasotako 400dik gora ipuin laburren arteko lagin bat pentsakor entzuteko aukera izan zuen, eta baita aldiro barre egiteko ere. 140 karakteretan denetariko gaiak landu daitezkeela, eta literatura egin daitekeela erakutsi dute lehiaketan parte hartu dutenek.

Hiru partaidek jaso zituzten ipuin laburrik onenen sariak. 14 eta 16 urte arteko parte-hartzaileen sailean, Mikel Mendibe zornotzarraren sorkuntza izan da 365 ipuin lehiaketaren lehenengo edizioan aukeratua: "Hegoak ebaki nizkion txoriari, baina korrika alde egin zuen".



Joxe Rojasek jaso du Twitter bidezkoen saileko saria.

Atal horretako ipuinik onena aukeratzeko lanetan ibili den Antton Uriarte elorrioko musikariak Mendibe zornotzarrak sortutako berbak oinarri hartuta konposaturiko kanta ederra ere entzungai izan zen eguazten iluntzeko Platerueneko sari banaketa ekitaldian.

17 urtetik gorako atalean, bestalde, Amaia Iraeta durangarraren lana hautatu du epaia emateko ardura izan duen Ainhoa Urienek. "Denetariko pertsonaia, maskara eta gidoi prestatuak teloiar bestaldean. Antzerkiaz asperturik, logelako

leihoa itxi zuen", testu esanguratsua idatzi zuen Amaia Iraetak. Berba horietatik abiatuta, Ainhoa Urien abadiñarrak idatziriko olerki sakonaz ere gozatu ahal izan zuten sari banaketa berezira gerturaturikoek.

Joxe Rojasek Twitter bidez #365ipuin traolagaz bidalitako ipuinak jaso du 100 eurok eta liburu sorta batek osatutako saria: "Esne mamitan bizi nahi zuen, baina alergia zion lakto-sari". Atal horretako ipuinik onena aukeratzeko lana hartu duen Eñaut Aiertzaguenaren iurretarrak ipuina ilustratu du.



Guztira, 70 ikaslek hartuko dute parte gaurko emanaldian.

Gabonetako kontzertuaren sarreratik lortutako dirua, Geu Beri laguntzeko

Durango musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan

> MUSIKA

Abenduaren 19rako, gaur iluntzerako, antolatu dute Durango Bartolome Ertzilla Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertu berezia. San Agustin kulturenean izango da ongintzako emanaldia, eta sarreratik biltzen duten dirua Geu Be elkartera bideratuko dute. Musika eskolako talde instrumentalek hartuko dute elkartasun kontzertu horretan parte: Orkestra Gazteak, txikien eta gazteen bandak, Gehi Zazpi biolontxelo

taldeak eta sokazko folk musika taldeak joko dute. Guztira, 70 ikaslek hartuko dute parte gaurko emanaldian.

Besteak beste, Orkestra Gazteak eta Gehi Zazpi eskainiko dute gaurko musika emanaldia

Geu Be elkartera bideratuko dute sarreretatik lortutako ete-

kina, ezgaitasun intelektuala eta premia bereziak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko helburua gauzatzen laguntzeko.

Ekarpenera egin gura duenak nahi beste sarrera birtual erosi ahaliko ditu Kutxabanken kurtxazinetan zein Interneteko gunean, eta Durango Arte eta Historia Museoan; sarrera bakoitzak balio duen zenbatekoa emango diote Geu Be elkarteari. Sarrera, beraz, ez da jesarlekua gordetzeko hartuko, diruagaz elkarteari laguntzeko baizik.

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburueto menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Grupo CATALANA
OCCIDENTE

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com




Konprometituta



aecc

*Contra el Cáncer
Minbiziaren Aurka*



Zure erosketarekin,
saldutako pakete
bakoitzeko, 5
zentimo zuzenduko
ditugu (AECC)

> Kirola

Areto-futbol txapelketa solidarioa antolatu du Ezkurdi futbol taldeak Gabonetarako

Sanfilippo gaitza duten umeen aldeko txapelketa abenduaren 28tik 30era bitartean jokatuko dute



Ezkurdi futbol taldeko jokalaria, txapelketa solidarioa antolatzaileak.

> ARETO FUTBOLA **M. Onaindia** Urte osoan hainbat laguntza keinu ikusi ditzakegun arren, Gabonetan indartu egiten da elkartasun ekimena. Arazo ekonomikoak dauzkatenentzako janari bilketak, Saharako errefuxiatuentzako produktuak, ezohiko gaixotasunen ikerketei bultzada emateko ekintzak... Hari horri jarraituta, Sanfilippo gaitza duten umeen aldeko areto-futbol txapelketa antolatu du

Ezkurdi futbol taldeak, eta abenduaren 28tik 30era bitartean garatuko da.

Hamabi talde lehian

Landako kiroldegian jokatuko da txapelketa, eta hamabi taldek parte hartuko dutela aurreikusi dute antolatzaileek. Lau talde federatuak izango dira, eta gainerako zortziak federatu bakoak. Bi sektore horietako onenek jokatuko dute finala abendua-

ren 30ean. Futbolzaleei txapelketan parte hartzeko dei egin diete Ezkurdikoek; hilaren 28an, 09:00etatik 14:00etara eman ahaliko dute izena, eta taldeetan hamar jokalarik egon ahaliko dira gehienez. 17:00etatik 20:00etara jokatuko dira partiduetak.

Stop Sanfilippo fundazioa Parte hartuko duen talde bakoitzak 100 euro ipini beharko ditu inskripzioan, eta jasotako diru

ren 30ean. Futbolzaleei txapelketan parte hartzeko dei egin diete Ezkurdikoek; hilaren 28an, 09:00etatik 14:00etara eman ahaliko dute izena, eta taldeetan hamar jokalarik egon ahaliko dira gehienez. 17:00etatik 20:00etara jokatuko dira partiduetak.

Bizkaiko finala jokatuko dute gaur Aitor Elordik eta Gorka Otaduyk

Gernikan, Oier Etxebarria eta Aitor Etxebarria izango dituzte kontrario



Aitor Elordi eta Gorka Otaduy, Josetxo Areitio prestatzaile fisikoagaz.

> PILOTA Joseba Derteano Iurretako Olaburu pilota elkarteko Aitor Elordik eta Gorka Otaduyk 22 urtez azpiko Bizkaiko Txapelketako finala jokatuko dute gaur, 19:30ean, Gernikako Santanape pilotalekuan. Lemoako pilota elkarteko Oier Etxebarria eta Aitor Etxebarria izango dituzte aurrez aurre.

Elordi eta Otaduy dira txapela janzteko faborito, nagusitasun handiz egin dutelako finalerako bidea, baina euren aurkariak ere maila onean ibili dira. Otaduyk atzean ondo eusten dio,

eta Elordiren inspirazioak eta aurreko jokoak erabaki dezake finala. Bizkaian, gaur egun 22 urtez azpiko partiduetan dagoen bikoterik indartsuenetakoa euren dela erakusten dabilta Otaduy eta Elordi Bizkaiko Txapelketan. Finalerdietan Barakaldok 6 tanto bakarrik egin zizkien.

Xisterako finalak Durangon

Bizkaiko txapelketako xistera modalitateko finalak, berriz, Durangoko pilotalekuan jokatuko dituzte zapatuan, 16:30etik aurrera. Kadete eta 22 urtez azpiko mailetan Markinako bikoteen arteko finalak izango dira; gazteen mailan Markina eta Berriatua neurtuko dira. Azkenik, elite mailan Euskal Jai eta Berriatua heldu dira finalera.

guztia Stop Sanfilippo fundazioari emango diote. Horretaz gainera, beste opari batzuk ere zozkatuko dituzte partidu egunetan, eta hori ere fundazioari laguntzeko erabiliko dute. Opari zerrenda luzea daukate: Athletic-eko Oscar de Marcos jokalaria Txapeldunen Ligako kamiseta, Athletic-Elx neurketarako sarrera bi, Real Madril taldeko Pepe jokalaria sinatutako zapatillak, Eibarko Eneko Bovedaren kamiseta, Pablo Be-

Parte hartuko duen talde bakoitzak 100 euro ipini beharko ditu inskripzioan

Opariak ere zozkatuko dituzte partidu egunetan, eta hori ere fundazioari laguntzeko erabiliko dute

rasaluze pilotariaren kamiseta, kirol arropa loteak, kafeterak, dendetan gastatzeko bonuak eta izotz pistarako txartelak. Opari horien zozketan parte hartzeko errifak Durangoko hainbat taberna eta komertziotan ipiniko dituzte.

Bestalde, antolatzaileek kontu korrante bat zabaldu dute Kutxabanken, parte hartu ez arren, ekimenari lagundu gura diotenei aukera emateko.

Hilaren 29an eta 30ean, areto futbolagaz eta elkartasunagaz zita dago Durangoko Landakon. Kirolaz gozatuta, Sanfilippo gaitzaren kontrako ikerketa bultzatzeko aukera egongo da.

Gabonetan ere errugbian aritzeko eskaintza

> ERRUGBIA J.D.

Durango Rugby Taldeak eta Sukia Rugby Eskolak, udalaren laguntzagaz, urte amaierako egunak errubiaren bueltan igarotzeko gonbita egin diete 6 eta 14 urte arteko gaztetxoek. Abenduaren 29an, 30ean eta 31n askotariko ekintzak garatuko dituzte, 10:00etatik 13:30era. Errugbian eta Tag errugbian jokatuko dute, eta igerilekura eta izotz pistara joango dira. Rugby tabernan egin daiteke izen-ematea, 40 euroan. Anai-arreba bi edo hortik gorako familientzako prezioa 20 eurokoa da izena ematen duen gazteko.

Urte gogoangarria garaipenagaz agurtu gura du Tabirako Baquek

Denboraldi honetan bederatzi garaipen eta porrot bakarra daroaz



Tabirako Baqué emakumeen talde nagusia. Judit Fernández.

> SASKIBALOIA J. Derteano
2014. urtea ez du berehalakoan ahaztuko Tabirako-Baqueko emakumeen talde nagusiak. Arrakastaz beteriko urtea izan du, eta zaleak garaipenera ohi-tu ditu. Joan zen denboraldian Lehen Mailako liga irabazi, eta igoera fasea jokatu zuen. Jokoa den denboraldian, ia talde beragaz, kimika irabazleari eutsi dio; orain arteko hamar parti-

duetatik bederatzi irabazi ditu, eta bakarra galdu, Bera Bera lider ahaltsuaren kontra. Etzi, 12:00etan, 2014ko azken partidua jokatu du etxean Loiola-Deusto-Indautxu Unibertsitatea taldearen aurka, eta aurten bizitakoaren ispilu izango litzatekeen garaipenagaz agurtu gura du urtea zaleen aurrean.

Iaz erakutsitakoaren ostean, ez da harritzekoa Tabirako Ba-

qué aurten ere maila onean ibiltzea, baina "hain ondo ibiltzerik ez genuen espero", dio Jesús de Vicente entrenatzaileak. Taldearen dohain handietako bat partidua estuetan erakusten duen nortasuna da: "Leioaren kontrako partidua kenduta, gainerako ia guztiak puntu gutxigatik eta azken minutuetan irabazi ditugu. Azken txanpa hori ondo kudeatu dugu orain arte. Minutu gu-

txiren faltan azpitik joan arren, partidua irabazteko kapaz gara la erakutsi du taldeak".

Erritmo bizia, intentsitatea eta trantsizio arinak dira taldearen zigilua. Jokamolde horrek une oro ahalegin fisiko handia eskatzen du, eta hori bermatzeko giltzarrietako bat talde zabala izatea da: "Jokalariek min hartu dutenetan ordezkoek maila ona eman dute. Hamabi jokalaririk ditugu, eta junior bat. Gure jokatzeko moduak lana eta sakrifizioa eskatzen ditu, eta denek eman dute eskatutako maila".

Marina Maurtuaren lana

Talde lana da errendimendu onaren sekretua, baina jokalarik jakin batzuen lana goraipatzeko ez du arazorik de Vicentek. Marina Maurtua joko antolatzailearen ekarpena azpimarratu du: "Taldekako kapitaina da, eta jokoaren pisua eramateko gaitasuna du. Borroka guztietan dago, eta lan handia egiten du. Orain hamabi urte debutatu zuen, 16 urte zituela. Oraindik gaztea da, eta aldi berean esperientzia handia du".

Domekako partiduari begira Zuriñe Orue-Mazaga pibota da duda bakarra. Azken partiduan besoan min hartu zuen, eta etzirako sendatuko dela uste dute, baina ez da segurua. Badaezpada, Aitziber Ardanza gaztea -lehen mailako juniorra- prest dago bere hutsunea betetzeko.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

2014a Tabirakoko nesken urtea izan da

Orain dela urtebete, gutxi gorabehera, *Aurten bai?* artikulua idatzi nuen Tabirako Baqueko nesken taldeari buruz. Denboraldi ona ari ziren egiten, eta beraien lan ona txalotzekoa eta zabaltzekoa izan zen.

Aurten, urteko azken idatzi hau ere beraiei buruzkoa izango da. Aurreko denboraldiko lana jarraipena izaten ari denez, horrek aipamen berezia merezi du. Hamar partidua jokatu dituzte, eta bederatzi garaipen eta porrot bat daramate orain arte; Erroibideren kontra (hamaikagarren sailkapenean) jokatu duen ligako azken partidua, emaitza estuagaz irabazi zutenak, aurreko denboraldian egindakoa ekarri zigun burura.

Oraindik denboraldi luzea geratzen da aurretik, baina, Jesús de Vicente, Iñaki Sevilla eta Enric Amelleren lanarekin eta laguntzarekin, taldea buru-belarri ari da indartzen eta lantzen, eta hori nabaritu egiten da jokatzen dituen partiduetan. Taldea indartsuago, joko aukera gehiagorekin eta finkoago sumatzen da.

Aurreko urtean bezala, taldekako zutabe nagusia diren Marina eta Nuria Maurtua, Marian Fernández, Leire Moreno, Alaia Berganza eta Zuriñe Orueren lan onak eta jokalarik gazteenek duten urtebeteko esperientziak taldea indartu egin dute. Horrek, eta egiten duten lan handiak, emaitza positiboak ekarriko ditu. Aupa neskak!

Zorionak eta urte berri on denorik!

Sasikoak lidergoan amaitu dezake urtea

Bihar Meatzari taldea hartuko du Landakon

> ARETO FUTBOLA

Sasikoak Hirugarren Mailako lidergoan amaitu dezake 2014. urtea. Orain, lehenengo postuan dago, bigarren dagoen Laskorainek baino puntu bat gehiagorekin. Bihar, 16:30ean, Meatzari Petronor taldea hartuko du etxean, eta irabazteko partidua du, batez ere, aurten etxean erakusten dabilen sendotasunagatik. Orain arte Landa-

kon jokatu du hiru partidua irabazi ditu Sasikoak. Kanpoan ere ez daki galtzea zer den: bi garaipen eta bi berdinketa.

Elorrioko Buskantza, berriz, bosgarren tokian dago. Asteburuan Santurtzin jokatu du, eta Elorrioko taldeak ere irabazteko partidua du. Santurtzik oraingorik ez du etxean partidurik irabazi, eta golik gehien hartu duen bigarren taldea da.

Saioa Gil Espainiako Kopako txapeldun

Ziklo-kroseko kadete mailan onena izan da

> TXIRRINDULARITZA

Iurretako CAF Transport Engrineering taldekako Saioa Gil txirrindulariak Espainiako Kopa irabazi du kadete mailan. Joan zen asteburuan txapelketako hamar lasterketatik azkena jokatu zen Valentzian, eta kadete mailan Gil izan zen onena. Denboraldi osoan erakutsitako nagusitasuna berretsi zuen bizkaitarrak. Ametzagako eta

Elorrioko lasterketak alde batera utzita -ezin izan zituen amaitu- kadete mailan gaur egun dagoen promesarik onenetakoa dela erakutsi du.

Elite mailari dagokionez, Aitor Hernández (Spezialized Ermua) eta Aida Nuño (MMR Spuik) izan dira onenak aurten. 23 urtez azpiko txapelketak Kevin Suarezek eta Alicia Gonzalezek irabazi dituzte.



HEKi
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

**Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!**

clínica dental **hortzklinika**
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

ATSEKABEA SORRARAZI

Ostiral arratsalde euritsua eta iluna. Haize zakarren astinduz zuhaitzak batetik bestera zebiltzan, noraezean, barealdia noiz etorriko zain. Eguraldiak ez zekarren hobera egingo zutenaren susmorik txikiena eta asteburua, berriz ere, euriteen eraginaren menpean izango zena nabarmen antzeman genion.

Ikastolatik zekarren autobusetik jaitsi ondorengo bere ibileraren geldo eta astunak zerbait begioker azaldu zitzaiona nabarmen adierazten zuen. Eguna bezala, goibel, betilun zetorren hamalau urteko Irene gaztea. Garbi etsita. Aurpegi gogogabe eta hildua ziren bere barne egoeraren lekuko. Hitza ere, hits. Ezer gutxi egiteko gogoz, adorez urri eta atsekabe handiz. Lan asko, ordu ugari eta diziplina handiz ikasturte honetak lehen ebaluaziorako azterketak egoki prestatzeari ekin zion. Egunero Zornotzatik hurbil, izena duen Ikastolarako bidaia dagi Irenek, hurrengo gorabehera bidea zein izango ote denaren beldur, azken asteotako berriek horretarako arrazoirik ematen baitiote.

Biziera nekagarri eta atseka bez josia zeraman Irenek azken asteetan irakasle dituenetarikoz batzuk ezarritako noten ondorioz. Irakasleek [eta gurasoak ere] lehenesten duten helburua azterketak gaingitu eta ikasturteak aurrera ateratzen joatea izaten da. Zoritxarrez, ikasleak aipatu helburua lortze aldera abiarazten dituen beste ekimen asko ez dira, gehienetan, egoki baloratzeko eta ondorioz ikasgai bakoitzean lortutako emaitzak baino ez dira, guraso eta irakasleentzako, aintzat hartu beharrekoak. Ireneren kasuan, ordea, arrazoiaren eta logikaren aurkakako jarrera garbia nabarmen azaldu dute hiru gairen irakasle direnek lehen ebaluazioko emaitza globaletan dezima bakar bategatik hiru ikasgai gaingitu gabe eman dizkiotenean. Horrela jardutean, irakasleek jarrera erabat erreaktiboa agertzen dute, garbi kaltegarria.

Irakasleak eredu izan beharra dauka. Irakasleak ikasleekiko enpatia izan behar du. Irakasleak ikasleen aurrean lidergotza izan behar du. Irakasleak jarrera orekatu eta arrazoizkoak agertu behar ditu, horretara bere ikasleentzako eredugarri eta iparrorratz izango baita. Irakasleari ez dagokio doan inorengan atsekaberik sortzea.

Irakasleak ikaslearekiko enpatia izan behar du

Errakuntzak, ikasbide hobezinak ditugu

Irakasleak zeregin oso garrantzitsua dauka, ez nolanahikoa, esku artean: belaunaldi berriak hezi, gaitu, trebatu. Belaunaldi berrientzako eredugarri izan. Irakasleak ikasleak motibatzearen erantzukizuna dauka. Eta dezima bakar bategatik, ikasgaiaren lehen ebaluazioa gaingituztat eman ez izanak, besteak beste, desmotibazioa, atsekabea, nekea, etsipena eta ilusiorik eza sorrarazten ditu.

Izen handiko ikastetxe baten ikasle izateak ez du berez bertako irakasleen jarduerara eta jarrerek hobeizintzat jo daitezkeenik esan nahi. Enpatia faltan bizi gara. Besteek ezartzen dizkiogun neurri eta exijentzia maila berdina nekez geure buruari eskatzen dizkiogu. Beraz, gure jardueretan, bereziki irakasleen kasuan, ikasleekiko enpatia gehiago azaldu beharra legoke, bakoitzak bere motxilan jarduerara eraginkor eta egokiagorik izate asmotan lanabes gehiago sartu beharko genituzke, pertsonak hezi, trebatu eta gaitzea baita helburu nagusia.

Gure jarrera eta jarduerak erabat eta sendo barneratuta ditugun ohituretatik eta gure oldozmenak duen kalitatetik sortzen dira. Gure oldozmen mailak zehazten du gure ja-

rreraren kalitatea. Irakasleek dezima bakar bategatik Ireneri lehen ebaluazioko hiru ikasgai gaingitu gabetzat emateak garbi adierazten digu irakasle omen diren omen oldozmen maila. Pentsatzen duguna gara eta gure izaera, gure nortasuna eta jarduerara beste iragartzeko komunikazio etengabea gara. Komunikazio horretan, unerik gehienetan, era erreaktiboan dihardugu, erreaktibotasunez pentsatzen baita gehienetan. Horren eredu garbia gorago aipatutakoa dugu: Irenek ikasgai bakoitza gaingituzko behar izan duen dezima bakar baten faltan utzi dutenaren erantzuna ikusita, irakasleek hartu duten erabakia guztiz bidegabe eta erreaktiboa dela onartu besterik ez dago, ikaslearen gabezia edota akatsa ikusteaz gainera iniziatibarik ezaren erakusle baita.

Jarrera egokiz besteen aurrean azaltzea da eraginkortasunez jardutea. Era proaktiboz jardun eta komunikatzeak gure inguruan diren pertsona eta gauzetan aldaketa baikorrak sorraraztea dakar, sentimenduak baloreen menpe ezartzea, edukiari baino izanari garrantzi gehiago ematea, gauzak gertatu daitezkeen jardun behar dugun erantzukizun eta ekimenez jardutea. Jarrera proaktiboa, ondorioz, arrakasta lortzeko beharrezkoa den baloreetarikoa bat dugu. Gizakiok geure zereginetan era proaktiboz jardutea eguneroko helburu bezala izan behar genuke, horrela Ireneri irakasleek jasanarazi diotena bezalako erabakiak saihestea lekarkeelako.

Hainbatetan, hirugarrenei adierazitako erantzun ia automatizatuak izaera erreaktibo garbia duten pertsonen ohitura eta hizkuntzaren lekuko eta erakusle zehatz dira.

Izaera erreaktibo nabarmenez jardutea da Ireneri ikasleentzako batek jakinarazi dion «berdin da bostaren emaitza izan edota bosteko dezima ba-

ten faltan egon» erantzuna ematea. Hizkuntza erreaktiborik dabilen inork ez luke irakaskuntzan irakasle zereginetan egon behar. Giza ekimenean, sarritan gertatzen da norbere lepo diren erantzukizunak hirugarrenei edota kanpo egoerei egozteak. Horrela gure ezbeharraren edota egoeraren erantzule edota errudun inguruan izaten diren pertsona, egoera edota gauzak izaten dira. Norberari dagozkion erantzukizunei aurre ez egiteko modu bitxia.

Aipatutako guztiak ondorengo bi adigaiak buruzko nolabaiteko zehaztasunik egitera garamatza: ondorioak eta errakuntzak

Pertsona bakoitzak garatu beharrekoak dituen egoera edota gaien inguruan hautaketarik bidezkoena egiteko erabateko askatasuna daukala nabarmen atzeman daiteke. Aldiz, ekintza horien ondorioak hautatzeko ez dago askatasun berbera. Ireneren kasuan hiru irakasleak ikasgai bakoitzean Irenek lortutako emaitzak bere horretan uztea, (ikasgaia aprobatzeko dezima baten faltan) erabaki zuten. Ondorio onik ez.

Gure jarrera printzipioek gobernatzen dute eta, ondorioz, printzipio horien arabera jarduteak emaitza baikorrak lortzea dakar. Hiru irakasleek, onartutako erabakiaren arabera behintzat, printzipio egoki eta zuzenez jarduteari uko egiten diote. Beraz, printzipioen arabera aritu ez izanak aurkako izaeradun ondorioak dakartza. Larriak benetan.

Erantzunaren hautaketa berrondatearen eremuari bakarrik dagokio eta aukeraketa kontziente horrekin erantzunetik eratorri daitekeen ondorioa ere aukeratzen dugu. Izaten da, egoera jakin baten aurrean edota erabakiak hartu beharrraren eraginez hautatutako erantzuna, urteen joanean, bidegabe edota ez egokitzat jotzea. Hautaketa horiek dira errakuntzak. Agian, Ireneren egoerari dagokionez, gerta daiteke gaur egoki bezala irakasleek hautatu duten jarrera eta erantzuna, urte batzuk barru errakuntza gisa

ikustea.

Errakuntzarekiko jarrera proaktiboak, berehalako zuzenketa eskatzeaz gainera, erratu izana onartu eta bertatik ikastea dakar. Jarrera hori, baina, umiltasunetik eta besteen aurrean gure errakuntzak onartu izate-tik baino ez dator.

Zoritxarrez, jarrera hori ez da ohikoa izaten pertsonen artean, eta sarritan, egindako errakuntzak onartzetik urrun, hantustearen eraginez, harropuzkeriaren bultzadaz edo enpatiarik ezaren ukituz, egindakoaren aurrean eta egindakoari eusten jarraitzeko helburua baino besterik izaten ez duen edozein motatako zuribide eta argudioak azaltzeari ekiten diogu, istilu, desadostasun eta gorabeherak gehitu besterik ez eginez.

Egindako errakuntzak berehala, arin eta gogo onez onartzea, osasungarri izateaz gainera, gorabeherak leundu, komunikaziorako bide zintzoak zabaltu eta harreman pertsonaletan hobekuntza nabarmenak dakartza.

Errakuntzak ikasbide hobezinak ditugu. Errakuntzak onartu ez izanak, zuzenketarik bideratu ezak, errakuntzetatik ikasbiderik ez izateak, errakuntza handiago baten kiribiltzea dakar, pertsonengan kalte ikaragarri handiagoko sorrarazten baitu.

Bestalde, gertaeren aurrean azaltzen ditugun jarrerak proaktibotasunaren muina eta arrakasta lortzeko bide egoki dira. Konpromisoak hartzeko jarrera, erantzukizuna nork bere gain jasotzekoa, eta hitzemandakoari eusteko jarrerak ere nortasunaren indarra areagotu eta gainerako gauza positiboak bideratzeaz gain hazkuntza pertsonalaren lagungarri ere ba dira.

Konpromisoak hartu, eutsi eta bideratzeko jarrerak integritate pertsonala eta moraleraikitzen dituzte eta norbere bizitzarekiko kontrol-kontzientzia emateaz gain, gero eta erantzukizun gehiago eskuratzeko indarra ematen dute, horretara gure ohoreak, emandako hitzak eta gure nortasunak, emozio egoerek baino garrantzi handiagoko lortzea ekarritik. Jakintza, gaitasuna eta asmoa beti kontrolpean izan behar ditugun arloak dira. Arlo horiek hobetuz, gure eraginkortasun pertsonala eta pertsonen artekoa maila jasotara eramateko aukera izan gaitzezke.

Jardun dezagun era proaktiboan eta izan bekigu behingoa dakorkigun 2015. urtea erabat osasungarri eta itxaropentsua. ZORIONAK

**Gorka Aurre
PRAKAGORRI**

**irakurri 4
ALDIZ ARINAGO**

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



PRAKAGORRI
Reading skills

94 491 57 63

DURANGO

Barrenkale 20

prakagorri@prakagorri.es

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

Kortazar, Ariznabarreta eta Ozaeta faborito Elorrioko Santxibiri proban

Abenduaren 28an lehiatuko dute Elorrioko Santxibiri herri lasterketa



Santxibiri lasterketako iazko irudi bat. Durango Kirol Taldea

> KORRIKA Joseba Derteano Durango Kirol Taldeak antolatuta, Santxibiri herri lasterketaren hirugarren aldia lehiatuko dute abenduaren 28an, Elorrioko kaleetan.

Parte-hartzaileak adinka banatuko dituzte. 12:00etan gatzetxo mailatako lasterketak lehiatuko dituzte. Gazte, junior eta nagusien lasterketak 12:30ean izango dira. Nagusiek 5,5 kilometroko ibilbidea osatu-

ko dute, eta gazte zein juniorrek 2,7 kilometrokoa.

Halaber, proba honetan Elorrioko kuadrillek ere parte hartu ahal izango dute. Ondoen moztrotutako hiru kuadrillek sariak irabaziko dituzte.

Gizonetan iazko irabazle Ekaitz Kortazar, Oier Ariznabarreta eta Julen Ozaeta izango dira faborito. Aurtengo Sarginen Lasterketako podiuma korrikalari horiek osatu dute,

baina ez ordena berean; Atxondon Ariznabarreta nagusitu zen. Aitor Mimenza elorriarra ere irabazteko borrokan egon daiteke. Emakumeetan Oihana Kortazar elgetarra da irabazteko hautagai nagusienetakoa. Izen-ematea doakoa da www.kirolprobak.com webgunean. Hilaren 27an, Elorrioko udaletxe azpian ere egin daiteke 11:00etatik 13:00etara. Parte-hartzaileek kamiseta bat jasoko dute.

Sailkapenaren goialdean amaitu gura du urtea Kulturalak

> FUTBOLA

Durango Kulturalak Alaves B-ren aurka jokatu du zapatuan, 17:00etan, Tabira futbol zelaian. Imanol de la Sotak gidatzen duen taldeak irabazi egin ditu Zamudioren eta Balmasedaren kontrako azken partidu biak, eta urtea playoff postuetatik gertu amaitu dezake, bihar Alavesen filiala menderratzeko badu.

Durango taldea bederratzigarren dago sailkapenean, baina hiru puntura bakarrik du laugarren kokatuta dagoen Gernika. Gasteizko taldea ere denboraldi ona osatzen dabil, eta zazpigarren dago: Durango taldeak baino puntu bat gehiago dauka.

Kulturalak porrot birekin hasi zuen denboraldia, baina ondoren zortzi jardunaldi eman zituen galdu barik: bost garaipen eta hiru berdinketa. Ondoren, hiru partidu galdu zituen bata bestearen atzetik, eta orain berriro gorantz egin du. Ez da gol asko sartzen dituen taldea, baina sartutakoei etekina atera die orain arte.

Gomezek beterranoen lasterketa uztea erabaki zuen, lehiatzen zebilela txarto sentitzen zelako. Aldageletara bidean zihoala, bat-batean zerraldo erori zen. Gurutze Gorriko osasun zerbitzuek ordubete egin dako ahalegin guztiak alferrik izan ziren.

Elite mailako lasterketak hasi behar zirenerako denek zekiten jazoera tristearen berri: "Beti gustatu izan zait Laudioko krosa, berezia izan da niretzat, eta ilusioz joan nintzen, baina horrelako gertaera batek kolpetik aldatzen dizkizu sentimenduak eta ilusioak. Ordutik aurrera, lasterketa eta emaitza bigarren mailan geratu ziren denontzat", adierazi du durangarrak.

Ospatu ez zuen garaipena lortu zuen David García durangarrak Laudion

Krosa lehiatzen zebilela hil zen José María Gomezi eskaini zion garaipena



David García helmugara sartzeaz, Laudioko krosean. Joseba Ibarrola

> KROSA

Garaipen bat lortu, eta ospatzeko ezer ere ez. Horrela sentitu zen David García durangarra joan zen asteburuan, Laudioko (Araba) 30. Herri Krosa irabazi ostean. Besoak gorantz jaso zituen, eta begirada ere bai, baina bere helburua ez zen poza adieraztea, dolumina erakustea baino. Goiz horretan, beterranoen lasterketa lehiatzen zebilela hil zen José María Gómez 54 urteko kantabriarrari eskaini zion inoizko garaipenik tristeena.

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Alaves B

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Padura

· Domekan, 11:30ean, Elizalden.

MAILA GORENA

Zaldia - Ermua

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

Abadiño - Lekeitio

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

LEHENGO ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Astrabuduako

· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Amorebieta B - Orduña

· Domekan, 17:00etan, Txolonen.

Iurretako B - Iraultza

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

BIZKAIKO KOPA (emakumeak)

Iurretako - Itugarpe

· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Meatzari

· Zapatuan, 16:30ean, Landakon.

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza B - Uxoa

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

Presion Break - Scalibur

· Domekan, 11:00etan, Berrizen.

LEHENGO ERREGIONALA

Abadiñoako Gazt. - Arabella

· Zapatuan, 17:00etan, Matienan.

Presion Break B - Hegalariak

· Domekan, 10:30ean, Berrizburun.

> SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Padura

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Uni. Deusto

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> ESKUBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Ibaizabal - La Salle

· Domekan, 12:30ean, Landakon.



2013ko irabazlea



Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak



www.renault.es/posventa**KALITATEA ETA PREZIOA USTEKABERIK GABE***Zer zapone dute
Gabonek?*

Aurten, Renaulti esker jakingo duzu.
Zure Renaultaren azterketa ELF
olioarekin egin eta gure gabon-sorta
eskuratuko duzu.*



Renault eta Elf 1968tik hona
elkarlanean, eraginkortasuna lortzeko



eta

**ZURE RENAULTAK RENAULT MEREZI DU***10.000 unitateko eskaintza. Sustapen honek izakinak agortu arte iraungo du. Ezinbestekoa da kupoa inprimatzean www.renault.es/posventa helbidean eta zuk aukeratutako saleraren harrera-lekuan aurkezteko.

Renault recomienda

GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA**DRIVE THE CHANGE**

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. - 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

- BERRIZ: Atikoa. Logela. Garaje itxia. 450 euro hileko.
- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500 euro hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 125.000€.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Eredu onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekot apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoa kanpora begira dago. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeo aukerarekin.

ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeo 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia bi familiako etxebizitza eraikitzeo. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ATXONDO: Martzaa auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreinatzeo.

BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baseria salgai. Nekazal turismo edo landetxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

- EITUA: 5 hektarea dituen baseria. Bi familiako etxebizitza eraikitzeo aukerarekin.

ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baseria.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekotak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO eta abar.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2-4 logela eta komun 2.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTXA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna (logela 2 egiteko aukera).
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Trastelekua.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursaila.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza eta balkoia. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

- Komentukalea: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.

- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.

- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.

- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.

- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.

- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

ELORRIO

- Etxe bakartu bat alokatzen da Elorrion, 2.975 m2-ko lursailarekin.

ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, despentsa eta bainugela. Balkoia.

- ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.

- FERIALEKU: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

MATIENA

- LAUBIDETA: 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Esekitoriarekin.

- SOLAGUREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.

- SOLAGUREN: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA



- Etxebizitza salgai, igogailuarekin eta berogailuarekin. Logela 2, egongela, sukaldea, despentsa eta komuna. **178.000€**. PREZIO NEGOZIAGARRIA.

IURRETA



- Guztiz berriztua dagoen etxebizitza. Ikuspegi ederrak ditu. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Terraza itxia. LEHEN 210.000€. ORAIN **174.900€**.

ERRETENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Esekitoriarekin. Berogailua eta igogailua. **160.000€**. PREZIO NEGOZIAGARRIA.

INTXAURRONDO



- Berrizteko. Solairu bakarrekot etxebizitza, binakako etxeekin. Auzokiderik gabe. 72,28 m2 eraikita. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Trastelekuarekin. **120.000€**. PREZIO NEGOZIAGARRIA.

ARAMOTZ



- 3 logela, sukalde jantzia eta komuna. Despentsa. Berogailua. **106.000€**.

SAN FAUSTO



- Berriztua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas Naturaleko berogailua. **88.000€**.

www.inmoduranguesado.com

AUKERA

- DURANGO: 80 m2. 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. 110.000€.
- ANTISO ESTEGIZ: Logela 2, komuna, egongela, sukaldea eta terraza. Berogailua eta igogailua. 110.000€.
- IURRETA: 3 logela eta komuna. Igogailua. 95.000€.
- ANDRA MARIA: 140 m2. 4 logela, egongela eta sukalde handia. Terraza. 155.500€.
- IURRETA. Uralde: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz berriztatua dagoen eraikina. Igogailua. Trastelekua. 130.000€.
- ZALDIBAR: Azkeneko 3 etxebizitzak estreinatzeo. BEZa barne. ORAIN PREZIO BEREZIAK.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- INTXAURRONDO: Logela 2, sukaldea, egongela. Despentsa. Trastelekua. 120.000€.
- ARANDOÑOTORRE (musika eskola ondoan): 130 m2. 4 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitoriarekin. Garajea. Solariuma. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garaje itxia.
- TABIRA: Azkeneko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, despentsa eta egongela. Garaje pribatua. Eguzkitsua. 176.000€.
- AK. ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela. Etxe osoa kanpora begira dago. Trastelekua eta garajea. 276.000€.
- ATXONDO: 90m2. 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde despentsarekin. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 173.000€.
- F.J. ZUMARRA: Logela 2 eta komuna. Igogailua. Berriztua. Eguzkitsua. 179.500€.
- BERRIZ. Iturrieta: Duplexa. 4 logela, komun 2 eta egongela. 12 m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea. 276.000€.
- MONAGOTORRE: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Esekitokia. Terraza. Ganbara eta garajea. 290.000€.
- ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Berriztua.
- DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. 125.000€.
- IURRETA. Bidebarrieta: 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 180.000€.
- ASK. ETORBIDEA (Ezkurdi): 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitoriarekin. Terraza. Ganbara eta garajea.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Garajea aukeran. 186.000€.
- OIÑITURRI (Ezkurdi): 140 m2. 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.
- ANDRA MARIA: ATIKOA. 107 m2. Logela 2, komun 2, jantzigela, sukaldea eta egongela-jangela.
- F.J. ZUMARRAGA: 4 logela eta egongela. Terraza. Etxe osoa kanpora begira dago. 186.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea.
- TXIBITENA: 3 logela, komun 2, egongela eta sukalde esekitoriarekin. Terraza 2. Ganbara eta garajea.
- MATIENA. Trañabarren: 3 logela eta komun 2. Terraza. Eguzkitsua. Ganbara. 190.000€.
- MATIENA: 60 m2. 3 logela. Ganbara. 108.000€.
- BERRIZ. Lehendakari Aguirre: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza. 149.500€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

Eguberrian, zerbait hunkigarria eskatu

EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu lehen!



Prezio onena beti

600 profesional baino gehiago ari dira lanean zure ametsak handi bihurtzeko, prezio txikietan.



Berehalako irtenbideak norakoan

Overbooking? Arazoak logelarekin?... Norakoan arreta eskaintzeko zerbitzua urteko egun guztietan.



Travel Puntuak opari

Zure bidaiarekin, 3 puntu erositako 6 euroko eta aparteko puntuak norako askotan.



Hiru hilabete interesik gabe

Eta komisiorik eta gasturik gabe. Orain gozatzeko eta pixkanaka ordaintzeko; Eroski Red txartelarekin. Eska ezazu, doakoa da.



170 bulego baino gehiago eta on-line erosteko bi web-orri

Zuk erabaki dezakezu, arreta bulegoan edo on-line erosteko gure web-orriak: viajeseroski.es eta escapareteviajes.es



On-line erreserbatu zure bulego gustukoenean

Nahi izanez gero, on-line ordaindu dezakezu bidaia gustukoaren duzun bulegoan. Behar duzun horretan aholkuak jasotzeko.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Abenduaren 20an, 19:30ean,
Elorriko Arriola antzokian

Koka Kola eta Barea

Ramon Agirre eta Iñaxio Tolosak sorturiko ikuskizuna da 'Koka Kola eta Barea'. Ez Dok Amairu taldearen sorreran artista handien artean ibili zirela kontatzen dute, "euskal kantagintzaren historia ero baten kontaketa eginez". Egileen berbetan, euren helburua, "jendea entretenitzea, barrea eragitea eta aspaldiko kanta eta batailak gogoraraztea da".



Antzerkia

:: BERRIZ

ABENDUAREN 19an

18:00etan, Mister Olentzero, Kultur Etxean.

ABENDUAREN 20an

20:00etan, Juana La Loca, Kultur Etxean.

:: DURANGO

ABENDUAREN 21ean

18:00etan, On egin, San Agustin kulturgunean.

:: ELORRIO

ABENDUAREN 20an

19:30ean, Koka Kola eta Barea, Arriolan.

:: ZORNOTZA

ABENDUAREN 30ean

17:00etan eta 19:00etan, Glu Glu Produkzioak taldearen 'Hiru txerritxoak', Zornotza Aretoan.



Musika

:: ABADIÑO

ABENDUAREN 27an

19:30ean, Santiago Banda eta Enrique Abelloren organo eta tronpeta kontzertua, San Trokaz elizan.

:: BERRIZ

ABENDUAREN 27an

20:00etan, Morgan, Kultur Etxean.

:: DURANGO

ABENDUAREN 19an

20:00etan, François Espinasse organista, Andra Maria basilikan.

23:00etan, Friends eta musika elektronikoa, Plateruenean.

23:00etan, Ndiaye et La Guéwel, Plateruenean.

ABENDUAREN 26an

22:30ean, Su Ta Gar, Plateruenean.

ABENDUAREN 27an

23:00etan, Sound System jaia, Plateruenean.

:: ELORRIO

ABENDUAREN 20an

20:00etan, Berrio Otxoa abesbatza eta Durangoko Jaizale taldeko txistulariak, Santa Ana kaperan.

:: ZORNOTZA

ABENDUAREN 19an

21:00etan, Zubiaur Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua, Zornotza Aretoan.

ABENDUAREN 21ean

12:30ean, Gabon kantak, Zornotzako koralaren eta txistularien eskutik, herrian zehar. 13:45ean, Kalbario plazan emanaldia.



Erakusketa

:: DURANGO

URTARRILAREN 4ra arte

Santos Okinaren 'Paisaiak', Arte eta Historia Musean.

:: ELORRIO

ABENDUAREN 26ra arte

Elorriko Argazki Taldekoen argazkiak, Iturri kultur etxean.

:: ZORNOTZA

ABENDUAREN 20ra arte

Ángel Calveteren 'El bosque y su esencia', Zelaietan.

ABENDUAREN 22tik
URTARRILAREN 9ra arte

Pintzelak elkartearen erakusketa, Zelaietan.



Tailerra

:: ELORRIO

ABENDUAREN 19an

18:00etatik 21:00etara, biodantza tailerra, Txintxirri ikastolan. Izen-ematea eta informazioa: 626 661 292 (Mentxu).



Dantza

:: DURANGO

ABENDUAREN 22 eta 23an

19:00etan, L'Atelier dantza eskolaren 'El cascanueces', San Agustin kulturgunean.



Bertsoak

:: DURANGO

ABENDUAREN 30ean

22:00etan, Urteko azken bertso saioa, Plateruenean.



Kontalaria

:: BERRIZ

ABENDUAREN 27an

12:15ean, Yolanda Arrieta: 'Kontu kontari', Kultur Etxean.

:: IURRETA

ABENDUAREN 19an

20:00etan, Virginia Imaz: 'Cuando el fin sea el principio', Herri Bibliotekan.

ABENDUAREN 30ean

12:00etan, Kurkuluxetan, 'Amonaren sutondoko ipuinak', Herri Bibliotekan. 3 urtetik aurrerakoentzat.

:: ZALDIBAR

ABENDUAREN 19an

17:30ean (1-5 urtekoak), 18:00etan (6-9 urtekoak), Zurrumurru: mamuak eta beste auzokide batzuk, liburutegian.



Zinema

:: BERRIZ

ABENDUAREN 19an (22:00) eta 21ean (19:00)

'El amor es extraño', Kultur Etxean.

ABENDUAREN 26an (22:00) eta 28an (19:00)

'Perdida', Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Big Hero 6

- barikua **19:** 19:00
- zapatua **20:** 16:45
- domeka **21:** 16:45
- astelehena **22:** 18:30

El Hobbit. La batalla de los 5 ejércitos

- barikua **19:** 22:00
- zapatua **20:** 19:30/22:30
- domeka **21:** 19:30
- martitzena **23:** 20:00

Diplomacia

- eguena **8 (urtarrila):** 20:30

2. ARETOA

El Hobbit. La batalla de los 5 ejércitos

- barikua **19:** 19:00
- zapatua **20:** 16:45
- domeka **21:** 16:45
- astelehena **22:** 19:00

Big hero 6

- barikua **19:** 22:00
- zapatua **20:** 20:00/22:30
- domeka **21:** 20:00
- martitzena **23:** 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

El viaje de tu vida

- zapatua **20:** 22:30
- domeka **21:** 20:00
- astelehena **22:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Trash. Ladrones de esperanza

- zapatua **20:** 19:30/22:30
- domeka **21:** 20:00
- astelehena **22:** 20:15

Mortadelo y Filemón contra Jimmy el cachondo

- zapatua **20:** 17:00
- domeka **21:** 17:00

Abenduaren 20an, 20:00etan, Berrizen

Juana La Loca

Histrión antzerki taldearen 'Juana La Loca, la reina que no quiso reinar' antzezlan izango da ikusgai bihar, Berrizko Kultur Etxean. Gaztelako Juana I.a erregina pertsonaia historikoaren inguruko antzezlan da, maitasunari, minari eta pasioari buruzkoa. Gema Matarranz Segoviako aktoreak antzeztzen du bere borondatearen kontra ezkontzera behartua izan zen Errege-Erregina Katolikoaren alabaren papera.



> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> **Ekik** urtetxo bat egin dau. Zorixonak etxeko txikitxueri familia osoaren partez. Mosutxuek!



> Zorionak **Larraitz** denon partez, Oskar, Paula, Irati eta Ana. Mosu potolo bat eta ondo pasau zure eguna.



> Abenduak 28an Mañariko **Imanolek** 7 urte beteko ditu. Zorionak txapeldun! Egun on bat igaro.



> Bi deabru hauek urteak beteko dabez: **Telmok** urte 1 eta **Martinek** 3. Zorionak zuen aitan ta aman partez!



> **Gotzon Irazolak** 33 urte beteko ditu hurrengo 21ean. Zorionak amaren partez!



> Abenduaren 23an 5 urte beteko dauz **Uxiak**. Zorixonak, gurasoen, Unazen eta lurretako familiaren partez!



> Zorionak **Zigor!** Aurten pastelak ekarri e! Ondo pasau eguna ta besarkada pilo bat.



> Abenduen 20en 57 urte egingo dozuz. Zorionak **Epi**, etxekoan partez; bereziki Naroa eta Ametsen partez.



> Datorren astean **Jonek** 9 urte eingo ditu. Zorionak etxekoon partez eta musu haundi bat.



> **Jugatxen** urtebetetze eguna abenduaren 22an izango da. Zorionak potxola!



> Zorionak **Jone!** Ondo pasa zure eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partez. "Pilo bat" maite zaitugu!



> **Izar Blancok** abenduaren 21ean 4 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi bat Unaxen partez.



> Abenduaren 15ien **Anek** 21 urte bete zauzen, 16xen **Mikelek** 22 eta 18xen **Anderek** 20. ZORIXONAK hirukote kuadrillien partez eta oporretan elegante pasau!



> Goiuriko Ama jubilatuen alkarteak urtean zehar 90 urte bete dituztenak omendu ditu bazkari on batekin ospatuz. Omenduak **Bernardina Rodríguez**, **Enrique Saavedra**, **Pedro Mari Monasterio** eta **Rosalía Sebastian** izan dira. Zorionak laurori eta hamar urte barru berriz elkartu gaitzela.



Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak **Izaro Ansorena!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 19 - 09:00-09:00
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
ZAPATUA, 20 - 09:00-09:00
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-13:30
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
• **Bartolome** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
09:30-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
DOMEKA, 21 - 09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide

Zahar 14 - Zornotza)
09:00-2:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
ASTELEHENA, 22 - 09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Eguren, Isabel** (Triañabarren 15 - Abadiño)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
MARTITZENA, 23 - 09:00-09:00
• **Etxebarría** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUAZTENA, 24 - 09:00-09:00
• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUENA, 25 - 09:00-09:00
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Bartolome** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
lurreta
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
lurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
lurreta **94 620 08 88**

4° **15°** ZAPATUA



-1° **13°** DOMEKA



1° **15°** ASTELEHENA



-2° **15°** MARTITZENA



> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztzenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....**0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa**1 euro**
Azelga**2 euro/kg**
Espinaka txorta**1,20 txorta**
Berakatz freskoa**1,50 txorta**
Ilarrak**6 euro/kg**
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
Gari integraleko ogia**3,30 euro**

“Oraindik injekzioak jartzeko edo belarritakoak ipintzeko eskatzen didate”

Ana Mari Piedra durangarra omendu dute Izurtzako emakumeek, herrian eginiko azokaren harira

➤ **AKUILUA** Jone Guenetxea
Orain 60 urteko Durangon emakumeei ezarritako role-tatik kanpo bizi zen Ana Mari Piedra. Gurutze Gorrian, Emakumeen Sustapenerako Zentroan eta beste hainbat elkartetan jardun du urteen. Izurtzako emakumeei lehen sorospen ikastaroa eman zien, eta, orain, ordainetan, omenaldi xumea egin diote. Bere bizitzak zer interes izan dezakeen galdetu du elkarrizketaren hasieran.

Izurtzan omenaldia egin dizute. Zelan sentitu zara? Ondo, nik ahaztuta nituen gauzeekin oroitu delako jendea. Niri ez zait agertzea gustatzen, baina polita izan da, oso jende atsegina delako.

Izurtzako emakumeekin zein hartu-eman izan duzu? Acción Catolican nenbilen, eta gero Gurutze Gorrian hasi nintzen. Izurtzara lehen sorospen ikastaro bat ematera etorri nintzen. Ondoren, hitzaldiak ere antolatzen lagundunien.

Ziztada ugari emandakoa zara. Oraindik jendeak injekzioak jartzeko eskatzen dizu? Antzina, injekzioak ematea kobratu egiten zuten, beraz, guk jartzen genituen. Oraindik ere hori gogoratzen duen baten batek eskatzen dit, baina esaten diet 82 urte gaz pultsu txarra dudala. Umeei belarritakoak ere jartzen genizkien, eta oraintsu eskatu didate jaioberri bati jartzeko, baina horri ere ezetz erantzun diot. Orain baliabide asko daude horretarako.

Baina zuk, ogibidez, dendan lan egiten zenuen. Dendara edozertara etortzen ziren. Pentsa, Merkatu plaza-ko langileak tentsioa hartzera etortzen ziren.

Zelan zabaldu zenuten Piedra denda? Nire aitak jarri zuen denda martxan. Ondoren nik eta senarrak jardun genuen bertan. Bost edo sei langile genituen. Oso ondo funtzionatzen zuen.

Minbiziaren kontrako elkar-tean ere jardun duzu. Marisol Azkunak gurekin ziharduen lanean. Durangora etorri ziren minbiziaren kontrako elkartea sortzera, eta berak esan zigun Montse Llorenteri eta niri bertan parte hartzeko. Orduan, ez nuen Gurutze Gorria guztiz utzi, baina erizainek kobratzeari utzi zioten, eta beste sasoi batera pasatu ginen.

Edozein ordutan joaten zinen injekzioak jartzera. Nire senarrak laguntzen zidan, mutil-lagun sasoiari, goizaldean injekzioa jartzera etxeren batera joan behar izaten banuen. Alde horretatik, nire senarraren babes osoa izan dut.

Orain 60 urte, emakume aitzindaria izan zinen. Emakume langilea zinen, eta Emakumearen Sustapenerako Zentroaren sorreran parte hartu zenuen. Emakume arloan beharrian hori zegoela nabaritu genuen. Emakumea baztertua zegoen.



Gizon batzuek, gure lana ikusterakoan, gaizki begiratzen gintuzten. Apurka-apurka gauzak aldatzen dabiltza.

Gaur egun, zelan ikusten duzu emakumearen egoera? Hobetzen joan da urteen joan-etorriagaz, baina oraindik borrokan jarraitu beharko dugu. Koska bat baino gehiago falta zaigu.

Negozio bat zenuen, eta elkartegintzan era aktiboan parte hartzen zenuen. Inoiz diskriminatua sentitu zara arlo horietan? Ez nuen jaramonik egin. Gurera ibili ginen. Sasoi hartan emakumea sukaldean egon behar zela esaten zuten. Nik ez nekien janaria prestatzen. Dendan nenbilen lanean.

Durangoko bonbardaketa bizi izan zenuen. Zein oroitzen duzu? Sasoi hartan, Santa Apolonia bizi nintzen, Iurretan, han jaio nintzen eta. Gogoratzen dut aititak esan zidala: “Ikusi, paperak”. Handik entzun genuen bonbardaketa. Aita Santanderkoa zenez, bertara eramane gintuen. Nik 5 urte nituen. Nazionalak pasatu ziren, eta Eusko gudariak abestu nuen. Sukalde baten azpian sartu ninduten.

Sasoi hartan euskaraz egiten zenuen berba. Ez nekien gaztelaniaz hitz egiten. Baina gero guztiz debekatu ziguten euskaraz berba egitea.

LAUHORTZA

JON ARTZA

Soziologoa



Marotoren bakardadea

Gasteizko alkatea den Maroto jaunak, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema (gaztelaniaz Renta de Garantía de Ingresos esaten dena) aldatzea proposatu berri du Eusko Legebiltzarrean. Argudiatu du Magrebeko etorkinek diru-laguntza horien erabilera maltzurra eta iruzurtia egiten dutela. Gainerako alderdiek eztabaidari uko egin diote, alkateak gaia modu demagogikoan eta hauteskundeei begira aurkeztu duela argudiatuz. Politika instituzionalari dagokionez, Maroto bakarrik geratu dela esan dezakegu.

Baina benetakoa al da bakardade hori? Ni ere, lagunartean gai honi buruz hitz egiten dudanean, nahiko bakarrik gertatzen naiz. Baina ez Marotoren tesiak defendatzen ditudalako; aitzitik, Marotoren defendatzaileak dira ni bakardadean uzten nautenak. Egiari zor, eztabaida ideologikoak izaten dira, aurreiritziz josiak. Datuak oso modu nahasgarrian ematen dira: urliak esan dit, sendiak entzun du, eta tankera horretakoak. Nire argudioek nazioarteko politika desorekatuetan, merkatu harreman bidegabeetan eta abar dute oinarri. Ahaztu barik gauza jakin batzuetarako etorkinak oso baliagarriak zaizkigula. Hala ere, onartzen dut diru-laguntzen banaketarako irizpideak ez ditudala behar bezala ezagutzen.

Jakinik Gizarte Zerbitzuak eskualdeka antolatzen direla, eta atrebentzia handia ez bada, Anboto astekariari Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako kideren bati ahotsa emateko eskaera luzatuko nioke. Pentsatzen dut askok eskertuko genukeela.

DURANGOKO GELTOKIKO
BM SUPERMERKATUAN
**GABONAK ZORATU
EGITEN GAITU!**



ABENDUAK 19 ETA
20AN BAKARRIK
-20%
zure erosketa
guztietan!*

ETA GAINERA

ETOR ZAITEZ ABENDUAREN 20AN

Eta eskuratu
TALO DOAN**

Eta txikienentzako:
PAILAZOAK
12:00etatik 13:00etara
PUZGARRIAK
arratsaldean!

ESKAINITZA BALIAGARRIA DURANGOKO GELTOKIKO BM SUPERMERKATUAN BAKARRIK.
*Ezinbestekoa da BM Txartela erakustea. **30€ baino gehiagoko erosketa batengatik.